2021eko irailaren 17a | 19. urtea | 862. alea
Durangaldeko astekaria

www.anboto.org

anboto

TOKIKOM

Euskal Herritik Kolonbiara

Arkaitz Zarraga, Rosa Elizburu eta Andoni Barreña nasa yuwe hizkuntzaren berreskurapenean dabiltza Garabide elkarteagaz. Hamar urtean, ahozko hizkuntza izatetik eskolak sortzera pasatu dira. Garabidek hizkuntza indigenei buruz San Agustinen antolaturiko erakusketan proiektu horren berri eman dute. • 2-3

"Herriak eman didana hari bueltatzeko aukera da pelikula"

Kultura • Zinema astearen barruan, Lara Izagirre zuzendari zornotzarra 'Nora' aurkezten ari da azken egunotan bere sorterrian, bere herrikideen aurrean. "Hunkituta" dago bere bigarren lana izaten ari den harreragaz. Oraindino beste hiruzpalau astez zinema aretoetan egongo dela uste du. Nazioarteko jaialdietan aurkezteko asmoa ere badu Izagirrek. Horrez gainera, sariren bat irabazteko aukeragaz "amesten" ari dela dio zuzendari zornotzarrak. Izaro Andres musikari mallabitarrak ere parte hartu du 'Nora' pelikulan. • 25

Triguerosek historia egin du Tor des Geants-en

Mendilasterketa • Silvia Trigueros abadiñarrak hirugarrenez jarraian irabazi du Tor des Geants proba mitikoa. Marka hori lortzen duen lehenengo korrikalaria da. Gizonetan garaipena lortu duen Franco Collek ere hirugarrenez irabazi du, baina ez dira elkarren segidan lorturiko garaipenak. • 26

Iurretako Udazken kulturala 2021

DHEO DURANGO
Hizkuntza Eskola Ofiziala
Escuela Oficial de Idiomas
Matrikula zabalik
Irailaren 30era arte aukera duzu izena emateko. Sartu gure web orrian eta egin eskaria.
Zalantzarik baduzu, deitu eskolara.
72,36€ ikasturte osoa
www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

"Herritarrek ikusten dute hizkuntza dela nasa identitatea ematen diena"

Zarraga, Elizburu eta Barreña lan handia egiten dabiltza nasa yuwe hizkuntza berreskuratzeko. Hamarkada batean ahoz bakarrik erabiltzen zen hizkuntza izatetik eskolak sortzera pasatu dira. Elkarlanean ereindako haziaren fruituak dira

Arkaitz Zarraga, Rosa Elizburu eta Andoni Barreña, Garabidek Ameriketako indigenen hizkuntzen inguruan Durangoko San Agustineko atarian antolaturiko erakusketan.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Euskal Herriko zortzi lagunek nasa yuwe hizkuntzaren berreskurapenean dihardute Garabide gobernuz kanpoko erakundeagaz. Arkaitz Zarraga Azumendi, Rosa Elizburu Oianguren eta Andoni Barreña Agirrebeitia talde horretako Durangaldeko kideak dira. Kolonbian dabiltza horretan lanean, 34.000 bizilaguneko haran batean. Guztira, 400.000 pertsonak osatzen dute nasa komunitatea. Garabide elkarteak San Agustin kulturgunean antolatutako 'Hizkuntza indigenak ama lurra zaintzen' erakusketan (irailaren 30era arte zabalik, 18:00etatik 20:00etara) proiektuaren berri eman dute.

Zelan ipini zen martxan proiektua?

Andoni Barreña: 2011n, nasa komunitateko lagun bat Garabideko formakuntza saio batera etorri zen lehenengoz: Bibiana Gonzalez. Sasoi hartan, Garabidek ez zuen hartu-emanik eurekin. Bestalde, Mikel Landaburuk Kolonbian lan handia egin du hizkuntza indigenen alde. Eusko Jaurlaritzari eskatu zion Garabidek hartu zezala berak izendaturiko pertsona bat talde hartan. Guk proiektua genuen Kolonbiako beste herri bategaz, eta, bide batez, Nasa herria bisitatzera joan ginen Mikel eta biok. Berehala igarri genuen interesgarria zela, organizazio indigenak berak 40 pertsona liberatuta zituelako hizkuntza sustatzeko. Baina eurekin elkartzerakoan konturatu ginen sustatzaile horiek ez zutela ezelango formakuntzarik. Hizkuntza zekiten pertsonak ziren, baina ez zekiten horretan idazten.

Egoera horretan, zelan eman zenituzten lehenengo pausoak?

Arkaitz Zarraga: Gurean, hizkuntzaren sustapena egin gura zuen jendeak bazituen ikasketa batzuk, nahiz eta gaztelaniaz izan. Seminarioetatik zetorren jendeak ikasketa maila altua zeukan. Magisteritza-ikasketak zituen. Nasa herriaren kasuan, hizkuntza baino ez zekiten.

Rosa Elizburu: Ni 2013an hasi nintzen. Urte horretan, bultzatzaile hauen formakuntzagaz hasi ginen. Hizkuntza zelan irakatsi daitekeen eskola batean, estrategiak ematen. Sustatzaile hauek bertako ikastetxeetara joaten ziren gela bakoitzari ordubeteko klasea ematera. Lan horretan laguntzen hasi nintzen. Urte hartan, asko abestu genuen eta jolas mordoa egin genituen. Sasoi hartan, Madres Comunitarias izeneko talde bat zegoen. Amak ziren eta mendian zeuden ikastetxeetara joaten ziren nasa yuwez berba egitera.

Rosa Elizburu, Itziar Amunategi eta Arkaitz Zarraga Jambaloko agintariekin, abuztuan.

> ***Konturatu ginen euren hizkuntza ez ezagutzea abantaila zela, eurek hartu behar dutelako hizkuntzaren nolakotasunaren ardura***

Instituzioen laguntza jaso duzue.

A.B.: Durangoko Udalak hasieratik babestu du proiektua. Baldintza zen proiektu horretan Durangoko jendeak edo Durangoko ikastetxeetako irakasleek parte hartu behar dutela.

R.E.: 2013an, Andoni, Rosa Mintegi eta hirurok hara joan ginen. Urte horretan pauso garrantzitsua eman zuten. El Manzanon euren ikastetxe propioa sortu zuten.

Bidaia horiek bereziak izango dira.

R.E.: Joaten garen bakoitzean erritual bat egiten dugu. Uretatik pasatu behar zara. Edo errekako uretatik edo eurek botatakotik. Armonizazio erritual bat da.

A.Z.: Naturagaz eta espirituekin armonizatzeko da. Koka orriak ere mastekatzen dira, txistua errekara botatzen da... Garbitu egiten zara. Une mistiko bat dago hor, sinisduna izan zein ez. Thë'jwalak irakurtzen ditu bertan gertatzen diren naturaren fenomenoak.

Inguru horretan gatazka handiak bizi dituzte.

A. B.: Eskualde hori narkotrafikoz inguratuta dago. Marihuana landareak eta koka dituzte. Bake prozesuaren ostean, hori hazi egin da.

Igarri da bake prozesuaren eragina?

A.Z.: 2013-2014ra arte borroka asko zegoen. Bonba-autobus bat ipini zuten eta sarraski handia gertatu zen. Indigenak eta FARC borrokan egon dira beti. Indigenek badute euren guardia indigena, eta makilekin egoten dira mendian lurraldea zaintzen. Beraz, FARCekoak eta armada ezin dira lurralde horretan sartu. 2014an, FARCekoek indigena bi hil zituzten. Herriko indigena pila bat igo ziren eta FARCekoak atxilotu zituzten. Herrira jaitsi ziren eta han justizia eurena denez, herriko plazan epaitu zituzten.

A.B.: Une horretan herrian geunden, baina handik atera gintuzten.

A.Z.: 2016-2017an bake prozesua hasi zen. 2017an igarri genuen etxeetan konponketak egiten hasi zirela. Ikusi genuen jendeak ilusioa zuela euren bizitza egonkortzeko.

A.B.: Arazoa etorri da FARCeko disidenteak narkotrafikoagaz lotu direnean.

A.Z.: Aurten ikusi dugu egoera oso gogorra dela. Hilketa asko izan da.

R.E.: Aurten, lehenengoz, ezin izan gara inora ere bakarrik joan.

A.Z.: Erakunde indigenek badute kanpaina bat drogen kontra, kafea eta horrelakoak lantzeko. Baina gatxa da, dirua ematen duena beste gauza bat bada.

Erakundeen aldetik, zein egitura dute?

A.B.: Estatuaren egitura udala da. Eta indigenek autonomia eta diru bat dute hezkuntza eta osasuna sustatzeko, lurraldea zaintzeko eta justiziarako. Guk, batez ere, erakunde indigenekin dugu hartu-emana.

Zein arlotan zabiltzate lanean?

A.B.: Hiru lerrotan gabiltza. Hasieran, Durangoko udalaren diru laguntzagaz joan ginen. 2013tik 2017ra, formakuntzak nahiko puntualak izan ziren, gure oporraldietan, batez ere bi indargunetan.

R.E.: Sortu zituzten eskola horien hezkuntza proiektua nondik nora joan behar zen landu genuen. Bigarren urtean, 2014an, bigarren eskola sortu zen eta langile eta irakasleekin jardun genuen. Egun bateko

antolaketaz gainera, hezkuntza proiektu osoaren zutabeak lantzen ibili ginen. Materialak zelan sortu, zelan erabili...

A.B.: Ulertu behar da bazutela euren alfabetoa, baina ez zutela hizkuntza horretan idazten.

R.E.: Irakasleak ere ez zeuden trebatuta sasoi horretan. Gaur egun, irakasle-ikasketak dituzte. Beraz, orain beste puntu batetik ekiten diogu. Baina, sasoi hartan, oinarritik hasi ginen.

A.B.: Mugimendu indigenak kudeatzen du hezkuntza sistema. PEBI deitzen da. Gaztelaniaz da eta astean ordu bi ematen dituzte nasa yuweraz. Horregaitik jaio ziren wasak eskolak, hemengo ikastolen antzekoak.

> ***Wasak ikastetxeak sortzea eta beste eskoletan ere beharrizan hori ikustea aurrerapausoa da***

Arkaitz, zuk zein arlotan diharduzu?

A.Z.: Helduentzako eskolak ematen zituzten sustatzaileak trebatzen hasi nintzen. Gertatzen dena da ez badute idatzizkorik, helduen munduari dagokiola idatzizko eredua sortzea. Jende askok ematen zuen izena ikasteko, baina ez zeukaten didaktikarik. Esate baterako, loreen edo animalien izenak irakasten zizkieten. Metodologia bat aplikatu eta material batzuk sortzeaz batera irakasteko prozedura batzuk ezarri zitezkeen. Kontuan hartu behar da sustatzaile hauek ez zekitela gramatika. Horiei irakasle izaten erakustea guk euren hizkuntza ezagutu barik erronka handia da. Konturatu ginen euren hizkuntza ez ezagutzea abantaila bat izan zitekeela, eurek hartu behar dutelako hizkuntzaren nolakotasunaren ardura. Unitate batzuk sortu ditugu. Europako erreferentzia markoa erabili dugu, baina garrantzitsua da euren kosmobisiora eta errealitatera egokitu behar dutela.

Euskal Herrian euskara batua hartu zen oinarri modura. Han badute horrelako ezer? Egin dute horrelako gogoetarik?

R.E.: Orain sortzen ari da gogoeta hori. Materiala sortzerakoan, gauza batzuk adostu egin behar direla konturatu dira, batez ere idazterako orduan.

A.B.: Hirugarren lerroa ere badugu. Sustatzaile horiek kontzientziatuta zeuden, baina hezkuntza, osasun edo justizia arloetakoak ez. Orduan, hartu-eman instituzionalak lantzen hasi ginen. Plangintza bat beharrezkoa zela konturatu ginen. 2016an salto kualitatibo bat izan genuen. Hango hizkuntza erakunde bateko zuzendaria gure alde ipintzea lortu genuen. Hitzarmena sinatu genuen. Horrela, formakuntza saio sakonagoak jende gehiagorentzat egin ditugu.

A.Z.: Lehenengo, hezkuntza izan zen, murgiltze-eskolak, helduen eskolak, eta gero etorri zen plangintza. Horrela, dibertsifikazio handiagoa etorri zen. Komunikabideak, itzulpengintza... Irakasle batzuek gaztelaniazko eskoletan nasa yuwe klaseak ematen zituzten ordu batzuetan, ezelango irizpiderik barik. Orain hori aldatzea lortu da. Eskola horietan ere beharrizana ikusi dute eta murgiltzerako pausoa ematen dabiltza. Prozesu honetan guztian zerbait ikusi badut, jendearen harrotasuna da. Lehenengo urtean, kalean galdetu eta jendeak ukatu egiten zuen hiztuna zela, nasa yuweraz berba egiten zuela. Orain harrotasunez esaten dute hiztunak direla. Badago herri gogo bat hizkuntza berreskuratzeko. Herritarrek ikusten dute hizkuntza dela, neurri handi batean, nasa identitatea ematen diena. Paraleloki badaude beste arazo batzuk, emakumeen egoera edo mestizajearena... Oraindino badago nasa izatea odolagaz lotzen duenik. Eta odoletik hizkuntzara jotzen ari dira.

R.E.: Sei edo zazpi dira sortutako euren eskolak, wasakak. Bertako ikasleak LH1., 2. eta 3. mailetara heltzen ari dira eta horientzako materialak prestatu behar dira. Gertatzen ari da gaztelaniazko ikastetxeek ikusi dutela wasakak badatozela indartsu eta nasa yuwe berba egiten duten umeak ere badituztela. Gizartean sentsibilizazio hori handitzen doa. Horregaitik eskola hauek ere elebitasunera jo dute. Hemen kokatzen da gure aurtengo proiektua, hain zuzen ere, LH 1. mailako ikasleentzako nasa yuwe irakasteko materialak prestatzea. Datorren urtean 2. mailarako... horrela etapa osorako.



Ameriketako hizkuntza indigenen mapa.

Zelan baloratzen duzue nasa yuwe hizkuntzaren berreskurapenean egindako lana? Kolaborazio honek zer eman dizue zuei?

R.E.: Ni hasi nintzenetik momentu honetara pauso asko eman da. Ikastetxeak sortzea eta beste eskoletan ere beharrizan hori ikustea aurrerapausoa da. Gurasoak ere bultzaka dabiltza horretan. Hasierako urteetatik hona bidea zabaltzen dabil. Gurasoek askotan mahaigaineratzen dituzten kezkek nire lehenengo ikastoletako pausoak gogorarazten dizkidate. Guraso erdaldunek galdetzen ziguten umeek euskaraz ikasiz gero eurek ezingo zietela lagundu. Horrelako galderak han ere ikusten ditut.

A.B.: Hemengo kooperazio politikagaz dudan kezka bat planteatu gura nuke. Bai gobernuak, bai diputazioak, bai udalek... horrelako proiektu bat sustatzeko duten konpromisoa ezin da urtebeterako hartu. Gutxienez, 10-15 urterako izan behar da, prozesuak horrelakoak direlako. Gobernuz kanpoko erakundeok zoratu egiten gara urtero hitzarmenak berrizten. Hizkuntza kooperazioa funtsezkotzat hartu beharko litzateke. Orain diru laguntzarik barik geratuko bagina, hau guztia bertan behera geratuko litzateke. Eurek bakarrik jarraitu beharko lukete, euren kontura. Eta uste dut oraindino laguntza minimo bat behar dutela kanpotik. Horrez gainera, kanpotik guk ere zer ikasten dugun nabarmenduko nuke.

A.Z.: Txikia nintzeneko ilusio hori, proiektu baten parte zarela sentitzea berreskuratzen lagundu dit. Ez gara txiki bakarrak. Gu hara joateak ere badu puntu egoista bat. Txiki asko bagoaz, bizirik irauteko aukera gehiago izango dugu. Bestalde, lezio asko eman dizkigute gure egozentrismotik irteteko. Euskararena prozesu azkarra izan da, munduaren erakusgarri. Debekutik eta ezkututik bizitzaren esparru guztietara zabaldu da euskara. Baina batzuek hori aldatu egin gura izan dute eta orain ematen du euskara inposatuta dagoela. Hor transmisio arazoa izan dugu. Kanpora begira, euskaragaz egindako ibilbidea transmititu dugu, baina gure gazteen artean barrura begira gehiago egin beharko genuke.

Arkaitz Zarraga, Rosa Elizburu eta Itziar Amunategi, abuztuan eginiko bidaian.

“Senegalen eskolak sortuta, hango gazteei hezkuntzarako aukerak eskaini gura dizkiet”

Serifo Tchente senegaldarrak Durangotik bere sorterrira bidalitako diruari eskerrak eskola bi sortu dituzte han. Ez du Afrika hustu bat gura, hezitako umez beteriko bat baino

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Serifo Tchente senegaldarrak orain 21 urte emigratu zuen bere herrialdetik, etorkizun hobe baten bila. Baina ez ditu hangoak ahazten. Hemen irabazi eta hara bidaltzen duen diruari eskerrak eskola bi sortu dituzte Senegalen. Azken sei urteetan Durangon bizi da. Madalena auzoko Auzo Alai elkartean dabil eta euren bitartez eskola materiala batu eta Senegalgo eskolara bidaltzen du.

Zelan otu zitzaizun Senegalen eskolak sortzeko ideia?

Gure familian zazpi neba-arreba gara. Anaia gazte batek medikuntza ikasketak egin zituen eta ezin zuen lanik aurkitu. Europara etorri gura zuela esan zidan behin. Nik uste nuen bere jakintza hango bizimodua hobetzeko erabili ahal zela. Horrela sortu zen Darou Thioub herrian eskola sortzeko ideia. Anaia da eskolako zuzendaria.

Zenbat ikasle daude gaur egun?

2015ean 97 ikaslegaz hasi zen martxan. Urtero hazten joan da eta gaur egun 600 bat ikasle daude. Lau gelagaz hasi ginen eta gaur egun 14 gela daude. Horregaitik behar dute materiala.

Zelako garrantzia du han eskolak sortzeak?

Begira, Europara bidean ume asko hiltzen dela ikusita, bihotza erdibitu egiten zait. Senegalen eskolak sortuta, hango gazteei hezkuntzarako aukerak eman gura dizkiet, ez dezaten atzerrira joan beharrik izan. Kontua ez da gazteek ez dutela ikasi gura, horretarako aukerarik ez dutela baino. Euren familia elikatu ezinik dabiltzan gurasoek zelan erosiko diete koaderno bana seme-alabei? Horregaitik da garrantzitsua eskola materiala batzea eta antzeko ekintzak egitea. Kulturarik ez duen herria galtzeko bidean dago eta hezkuntza da irtenbidea. Afrika husten ari da eta hori ez da ona. Gazterik geratzen ez bada, nork lan egingo du etorkizun hobe baten alde?

Non aurkitu duzu dirua proiektua gauzatzeko ?

Hemen irabazten nuenaren zati bat hara bidaltzen nuen. Euroak, trukean, gehiago balio du han. Hango eskola auzolanean eraiki zuten.

Madalenako Auzo Alai elkartean aurkitu duzu asmoa gauzatzeko sostengua.

Bai. Ideia proposatu nien eta oso ondo iruditu zitzaien. Talde lanari eskerrak eraman dugu aurrera. Materiala toki askotatik lortu dugu: San Antonio ikastetxetik, Iurretako institututik, Landako eskolatik, Tabirako klubetik, Open gimnasiotik, Mankomunitatetik eta abar. Hainbat lagunek biltegiak utzi dizkigute materiala gordetzeko. Eskerrak eman gura dizkiegu denei.

Bizikletak ere batu dituzue. Zergatik?

Ume askok kilometro asko egin behar dituzte egunero eskolara joateko. Nik txikitan zazpi kilometro egin behar izaten nituen eskolara joateko, eta beste hainbeste bueltatzeko. Badakit hori zer den. Pozik gaude, guztira 160 bat bizikleta batu ditugu eta.

Honako hau ez da sortu duzun eskola bakarra.

Ez, bigarrena da. Lehenengoa 2001 inguruan sortu genuen, nire herrian, Cucumba-n. Hura ere martxan da gaur egun.

Darou Thioub herriko eskolako gela bat.

Serifo Tchente materialez beteriko kamioiaren aurrean, joan zen zapatuan.

Durangoko deskontu bonuak eskuragarri daude dagoeneko, 'bonoa.durango.eus' atarian

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak trantsizio digitalean sakonduta ekin dio deskontu bonuen kanpaina berriari. Kanpaina eguaztenean hasi da eta berrikuntza bat ekarri du besapean: oraingoan Interneten bitartez eskuratu daitezke txartelak, *bonoa.durango.eus* atarian. Udalak esan du tresna horri eskerrak saihestu egingo direla orain arte saltokietan sortu izan diren ilarak. Gainera, kanpainari atxikitako negozioei buruzko informazioa ere eskaintzen du web orriak. Bestalde, dendariek app bat izango dute eskura, kanpainari loturiko kudeaketak bertatik egin ahal izateko.

Udal agintariek teknologia berrietara egokitzen joateko beharrizana azpimarratu dute. "Azken urte bietan, parte hartzeko webgune bat aurkeztu dugu (*partehartu.durango.eus*). Hileak daramatzagu udal webgune berria eraikitzen, kultur programaziorako app bat dugu (*Durango Kulturaz Blai–DKB*) eta orain Komertzio Bonuetarako aurkeztu dugu webgune hau (*bonoa.durango.eus*)", esan dute.

Aritz Bravo eta Neskutz Rodríguez zinegotziak, tresna digital berriak eskuetan.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko irailaren 17a
19. urtea - 862. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO AMOREBIETA - ETXANO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI
IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Andereak elkarteak kaleak hartzeari ekingo dio berriro, emakumeen salerosketaren kontrako performance bategaz

Irailaren 23an izango da performancea, Andra Marian, 18:30ean. Bestalde, elkarteak jakinarazi du kontzentrazioen maiztasuna gutxituko duela hemendik aurrera. Eguenero barik, hilean behin batuko dira aurrerantzean

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Etenaldiaren ostean, protestara berriro. Durangoko Andereak elkarteak jakinarazi du datorren eguenean kaleak hartzera bueltatuko direla, emakumeenganako indarkeriaren kontrako lanari berrekiteko. Elkarteak iragarri du performance batekin ekingo diotela ikasturteari, emakumeen salerosketaren kontrako ekintza bat eginda. Performancea irailaren 23an egingo dute, Emakumeen Salerosketaren Kontrako Nazioarteko Egunagaz bat eginda. Andra Mariako arkupean egingo dute, arratsaldeko 18:30etan.

Bestalde, elkarteak iragarri du elkarretaratzeen maiztasuna gutxituko duela hemendik aurrera. 2005etik hona astero aritu dira kontzentrazioak egiten, baina hemendik aurrera hilean behin batuko dira, zehatz esanda, hil bakoitzeko azken eguenean. Horrenbestez, datozen hitzorduak urriaren 28an, azaroaren 25ean eta abenduaren 30ean izango dira. Halaber, azaroaren 25ekoa manifestazioa izango dela aurreratu dute.

Jarrera abolizionista

Andereak elkartea Euskal Herriko mugimendu abolizionistaren koordinakundeko kidea da, beste 9 talderekin batera. Egitura horren helburua "prostituzioa, pornografia eta alokairuko sabelak indargabetzea" da, horiek "emakumeen aurkako indarkeriaren muturreko formak" direlakoan. Dena dela, elkarteak adierazi du Euskal Herriko Mugimendu Feministak inguruan gertatzen diren hilketen aurka antolatzen dituen elkarretaratzeetan ere parte hartuko duela.

Prostituzioaren abolizioaz aritzeko Andereak elkarteak antolatutako jardunaldi bat, San Agustin kulturgunean, 2019ko abenduan..

Naiara Carreto durangarrak ETBko 'Baserria' saioan parte hartuko du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Euskal Telebistak Baserria saioaren bigarren denboraldiari ekingo dio laster eta bertan parte hartuko duten lehiakideen izenak argitzeari ekin dio apurka-apurka. Naiara Carreto durangarra izango da bertan parte hartuko duen kideetariko bat. Carretok 36 urte ditu eta @*baserria_eitb* Instagram kontuan adierazi duenez, "makillaje pila bat" hartuta jo du lehiaketa "irabaztera".

Baserria saioak denboraldi arrakastatsua izan zuen iaz, eta erronka horri eutsiko dio aurten ere. Irailaren 19an ekingo diote emisioari. Realityaren bigarren denboraldia domeka honetan estreinatuko dute, ETB1 kanalean eta *eitb.eus* atarian.

'Zaharraz harro' taldeak irabazi du Labur Esanda lehiaketaren aurtengo edizioa

Taldeak 300 euroko saria eskuratu du. Sarituriko beste lanak Purpur taldearen "Desinstalatu" eta Tarkovskyren Semeak taldearen izen bereko bideoa izan dira

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Joan den asteburuan Labur Esanda film laburren lehiaketa jokatu zen Durangoko San Agustin kulturgunean. Berbaro euskara elkarteak bigarrenez antolatu du lehiaketa, eta iazko edizioaren aldean parte hartzea apur bat jaitsi den arren, elkartea pozik agertu da aurtengo emaitzagaz. Antolatzaileek honako baldintza hauek ipini dituzte aurtengo bideoak egiteko: gaia 'Gezurra' izan da, istorioan zehar sartu beharreko objektua 'aloe vera', eta baliatu beharreko esaldia 'inurriarentzat ihintza uholde'. Taldeek 24 ordu izan dituzte baldintza horiekin filmak egin eta entregatzeko. Epaimahaia Arantza Arrazolak, Ander Sagardoyk eta Miren Erdoizak osatu dute.

Berbaro elkarteak eskerrak eman dizkie parte hartzaileei eta bigarren edizioa aurrera eramateko laguntza eskaini duten denei. Elkarteak azpimarratu du datorren urtean ere euskarazko ikus-entzunezkoen sorkuntza bultzatzen jarraituko duela, Labur Esanda lehiaketagaz.

Talde irabazleko kideak, sari banaketan.

Abadiñoko hamar bat herritarrek udalerriko kale katuak babesteko lan boluntarioari ekin diote

Elkartea sortu dute 'Abadiño Kalekatuak' izenpean, eta herriko kale katuen "bizi baldintzak defendatzea eta babestea" dute helburu. Horrez gainera, kontzientzia sortu gura dute animalia askok jasaten duen tratu txarren aurrean

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Uztailaren 8an hasi zen dena, herritar batek kale katu bat hilzorian topatu zuen egunean. Katua salbatzeko asmoz, herritarrak bateko zein besteko instituzioetara jo zuen laguntza eske, baina hainbat traba topatu zuen bidean. Gertakari hark eragin zuen txispa. Traba haiek ikusita, Abadiñoko hamar bat herritarrek elkarte baten bueltan antolatzea erabaki zuten boluntariotza lan bat hasteko. Goizalde Salterain da boluntarioetariko bat. "Gu hona ailegatu baino lehenago, baziren katuei jaten ematen zien beste hainbat herritar. Orain elkartu egin gara eta talde bat osatu dugu denon artean. Momentu honetan, udalaren baimena dugu katuen zainketaz arduratu eta jaten emateko. Ardura hori gure gain dugu", dio Salterainek.

Elkarteak 100 kale katu ditu identifikatuta, bakoitza bere fitxagaz eta argazkiagaz. Besteak beste, Gazteluan, Mendiolan, Astolan, Sagastan, Traña-Matienan eta Zelaietan identifikatu dituzte katu koloniak. Ezin katuen kopuru zehatza zehaztu, baina. Salterainen esanetan, elkartearen helburua "katuen osasuna bermatzea, haien kolonia inguruak garbi mantentzea eta haiek aterpetzeko etxolak ipintzea" da. "Ulertu behar duguna da katu hauek askotariko arrazoiengaitik amaitu dutela kalean bizitzen. Edo galdu egin dira edo abandonatu egin dituzte; baina etxea dute sorburu". Elkarteak ateak zabalik ditu boluntario lez parte hartu gura duenarentzat. Sare sozialetan ipini daiteke eurekin hartu-emanetan. Dohaintzetarako, 679290896 bizum zenbakia dute.

Elkarteko boluntarioetariko bat, Traña-Matienako kale katu bati jaten ematen.

Kultur programazioari hasiera emango diote gaur Zaldibarren 'Gabe' obragaz

ZALDIBAR • A.M.

Virginia Imaz klown ezaguna zuzendari duen *Gabe* ikuskizunaz gozatzeko aukera edukiko dute gaur zaldibartarrek. Galimatias (Ander Muñoz) eta Efervescencio (Karmelo Muñoz) dira antzezlaneko protagonistak, eta familia osoarentzako moduko emanaldia ondu dute oraingo honetan. Emanaldia 18:00etan izango da, udaletxeko plazan.

Kultur egitarauagaz jarraitzeko, urriaren 14an guraso eta umeentzako *Irakur eta jolas txokoa* ekimena martxan ipiniko du Zaldibarko Udalak. 17:00etan hasiko da eta gurasoei eta 3tik 5 urtera bitarteko umeei zuzenduriko ekimena da.

Martitzenean Zapatublain

Bestalde, Berdintasun Sailak antolatuta, *Fabricando mujeres 2.0* dokumentala proiektatuko dute liburutegi zaharrean, irailaren 21ean, 18:00etan. Horren ostean solasaldia egongo da.

Abadiñoko EH Bilduk salatu du kamioiak "baimenik barik" dabiltzala lanean AHTko obretan

Mikel Urrutia EH Bilduko zinegotziak agerraldia egin du eguaztenean Mendiolako sarreran

ABADIÑO • ARITZ MALDONADO

Mikel Urrutia Abadiñoko EH Bilduko zinegotziak agerraldia egin du asteon, AHTko lanetan joan-etorriak egiten dituzten kamioiak "baimenik barik" lanean dabiltzala salatzeko. "Abiadura Handiko Trena eraikitzeko lanetan dabiltzan ibilgailuek ez dute oraindino baimenik lanerako. Abadiñarren segurtasuna lehenetsi beharko litzatekeela uste dugu, eta hori bermatu bitartean, hau da, kamioiek joan-etorri horiek egiteko lizentzia lortu bitartean, gelditu egin beharko lirateke", salatu du Urrutiak. Kamioien lan bolumena ere kritikatu du EH Bilduko kideak: "Kamioien joan-etorria etenik bakoa da, eta arazoa handiagoa da baimenik ez dutela kontuan hartuta, gainera". Horrez gainera, udal gobernu taldearen "utzikeria" ere salatu du Mikel Urrutiak. "Enpresak 2019ko abenduan egin zuen lizentzia eskaera. Lanak 2020ko apirilean hasi ziren, baina kamioien joan-etorrirako baimenik ez dago oraindino", gaineratu du.

Kamioi bat AHTko lanetara sartzen, Mendiolarako sarbidean.

Eraikina urriaren 7rako hustuta izatea agindu diote Zornotzako gaztetxeari

Gaztetxeko kideek salatu dute ez dela kontuan hartu eraikinean bizi den herritar errefuxiatuaren "egoera larria"

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Munarri gaztetxeak kanporatze agindua jaso du. Halantxik jakinarazi dute gaztetxeko kideek. Jasotako ebazpenak eraikina urriaren 7ko goiza baino lehenago hustuta egotea eskatzen du. Horrek, baina, badu albo kalterik. Izan ere, eraikinean herritar errefuxiatu bat bizi da, eta gaztetxeko kideek salatu dute haren "egoera larria" ez dela kontuan hartu.

Joan zen apirilean, gaztetxea husteko saiakera egon zen. Gazteek orduko hartan adierazi zutenez, desalojo ahalegina "herritarra lanera joandakoan eta etxea hutsik utzitakoan" gertatu zen. Sarrailagilea eta Ertzaintza "herritarra eraikinetik noiz irtengo zain" egon ziren, gero sarraila aldatu eta eraikina husteko. Azkenean, bere horretan geratu zen guztia.

Egun hartatik aurrera, gaztetxeko kideek hamar eguneko epea izan zuten eraikinean herritar bat bizi zela justifikatzeko. Gazteek esan dute justifikazio hori egin dutela, baina azpimarratu dute auzitegiak ez duela herritarra "zaurgarritasun egoeran" dagoela ebatzi. Bestalde, Zornotzako Udalari leporatu diote "eraikinaren jabea den enpresan interesak" izatea.

Mobilizaziorako deia

Munarriko kideek protesta sorta prestatu dute desalojoa geldiarazten ahalegintzeko. Domekero bizikleta martxak egingo dituzte, 13:30ean, Urgozotik hasita. Bestalde, urriaren 6an manifestazioa egitea aurreikusi dute. Oraingoz ez dute ordurik finkatu, baina iluntze aldera izango da. Gainerakoan, gaztetxeko kideek aurrera jarraituko dute orain arte programaturiko egitarauagaz. Zapatu honetan eta hurrengoan, adibidez, autodefentsa tailerrak egingo dituzte.

Osasun gida

Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Fisioterapia
PSE: 119/13

Zainduz
FISIOTERAPIA OSTEOPATIA
Ane Legorburu Munitxa
Trañabarren 13, 4. blokea behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO
944 657 132 - 686 906 374

Pedagogia
PSE: 63/63

UGATZ
UMEAREN GARAPENERAKO ZENTROA
Laguntza goiztiarra, psikomotrizitatea, fisioterapia, logopedia
Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

Fisioterapia
PSE: 57/16

pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia
Muruetatorre, 2D
DURANGO
pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

Optometria
PSE: 162/13

Naia Zabala Azumendi
11587 kol. zk.
keinu
• Optiometrian teknika aintzindariak
• Kontaktologia • Haurren ikusmena
• Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
• Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k
Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

Podologia
PSE: 148/13

PAUSOZ PAUSO
Podologia klinika
Goiatz Murua
kol. zbk.147
Ainhoa Elorza
kol.zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329
Kiropodia, onikopatia, alterazio dermatologikoak eta ibilerako alterazioak
Telefonoa: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

Odontologia
PSE: 145/13

RPS: 145-13
clínicadental hortzklinika
b. unamunzaga e.etxebarria
Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako
{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194
454uecdental@gmail.com

Odontologia
PSE: 112/13

J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia
Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

Estetika
PSE: 16/09

AGIRRE KLINIKA
MEDIKUNTZA ESTETIKOA
www.medicinaesteticadurango.com
Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra
Obesitatea-zelulitisa,Laserra: depilazioa (prezio bereziak), barizeak...Adinaren kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...
Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

Psikologia
PSE: 62/11

JON ARRUABARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA
• Antsietatea, estresa, fobiak
• Depresioa • Eskola arazoak
UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK
Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psikologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Iaz Arrazolan egindako azokako argazkia.

Udazkenari ongi etorria emateko azoka antolatu dute Arrazolan

Durangaldeko 11 artisau eta sortzaileren lanak egongo dira ikusgai domekako azokan

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Udari amaiera eman eta udazkenari ongi etorria emateko asmoz, artisau, sortzaile eta ekoizleen Eixu elkarteak azoka antolatu du Atxondon. Azoka irailaren 19an izango da, domekan, plazan, eta 10:30etik 15:00etara egongo da zabalik.

Durangaldeko 11 artisau eta sortzaileren lanak egongo dira ikusgai bertan: oihalagaz eginiko osagarriak, bitxiak, zur-lanketak, arropa eta kosmetika naturalak, besteak beste.

Artisau eta sortzaileak

Honako artisau eta sortzaile hauek izango dira Arrazolako plazan postua ipiniko dutenak: Kukupraka & Mai Mai, eTxo, Artizar, Birak, Tartalo, Kenika, Hasi ta Hazi, Gorakat, A.G.T.Z. Prints, Eguzkilore eta I.B. Soaps.

Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute zuzeneko musika egongo dela azoka girotzeko. Kaleko Soinuak Kaleak Astintzen Durangoko taldeak kontzertua eskainiko du, 12:30ean.

Hori horrela, antolatzaileek Arrazolara bertaratu eta azoka bisitatzeko deia egin diote jendeari. Horrez gainera, autobusa ez dela plazaraino igoko argitu dute.

Azoka irailaren 19an izango da, eta 10:30etik 15:00etara egongo da zabalik

Frankismoaren biktimak gogoan izan dituzte Berrizen

Hainbat herritar bertaratu zen Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak eta udalak antolaturiko oroimen ekitaldira

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 11 gomuta eguna izaten da Berrizen, frankismoan hildako eta errepresaliaturiko herritarrak omendu eta gogoratzen dituzte eta. Izan ere, 1936an indar frankistek orduko alkate Felipe Urtiaga, eta Jose Agirre, Gregorio Urkijo, Fermin Aranguren eta Agustin Milikua herritarrak fusilatu zituzten. Berriztar horiek eta frankismoa sufritu zuten guztiak gogoratu zituzten zapatuan eginiko ekitaldian.

Frankismoan hildako eta errepresaliaturiko herritarrak omentzen dituzte irailaren 11n

Hainbat herritar batu zen eta hainbat lagunek parte hartu zuen Berriz 1936 Gogoratzen elkarteak eta Berrizko Udalak udaletxeko lorategian antolatu zuten ekitaldian. Tartean, dantzariak, musikariak eta abesbatzako kideak egon ziren.

Zapatuan lore eskaintza egin zuten udaletxe aurrean.

Eskola Kirola programan izena emateko aukera, Elorrion

Elorrioko Udal Liburutegiak irakurketa sustatzeko jarduerak antolatu ditu ume eta helduentzat

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udalak Eskola Kirola programako eskolaz kanpoko kirol jardueretan izena emateko epea zabaldu du. Udaletik jakinarazi dutenez, Lehen Hezkuntzako ikasleei zuzenduriko jarduerak izango dira eta kirol jarduera ez lehiakorren bitartez ondo pasatzea eta gizarteratzea izango dute helburu. "Eskola Kirola ohiko kirola baino gehiago da. Hartu-emanak izateko eta lagun berriak egiteko modu bat da, kirol jarduerak modu dibertigarri eta osasungarrian egiten diren bitartean, lehiakortasuna alde batera utzita", azaldu du Dani Palacios kirol zinegotziak.

Eskola Kirola programan parte hartu gura duten ikasleek irailaren 22a baino lehenago eman beharko dute izena Elorrioko Udaleko Herritarren Arreta Zerbitzuan.

Helduentzako irakurketa klubak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez izango dira

Irakurzaletasuna bultzatzen

Bestalde, Elorrioko Udal Liburutegiak irakurketa sustatzeko jarduerak antolatu ditu ume eta helduentzat. Helduentzat irakurketa klubak, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Umeentzat 'azalerako ipuinak' tailerra 0tik 3 urtera artekoentzat, eta 'liburuen poltsa' 3tik 8 urtera artekoentzat.

Elorrioko Udalak herriko emakumeak boteretzeko ikastaroak antolatu ditu

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udaleko Berdintasun Sailak emakumeak boteretzeko ikastaroak eta berdintasunerako ekimenak ipiniko ditu martxan. Elorrioko Udaletik azaldu dutenez, ikastaroak berdintasun erreal eta eraginkorrerantz aurrera egiten jarraitzeko eta emakumeen boteretzeari balioa emateko dira.

Emakumeak boteretzeko ikastaroak udazkenean egingo dira: urrian, azaroan eta abenduan. Beraz, bertan izena eman gura duten heritarrek Herritarren Arretarako Zerbitzuan eta udalaren webgunean horretarako eskuragarri dagoen orria bete, eta *berdintasuna@elorrio.eus* helbide elektronikora bidali beharko dute.

Ikerketa lan bati ekin diote Iurretako Goiuria ikastola gogoratzeko

Herritarrek etxean izan ditzaketen dokumentu eta argazkiak helarazteko deia egin du ikerketa taldeak

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Goiuria ikastolako boluntario eta guraso izan ziren herritar batzuek ikerketa bati ekin diote, orduan eginiko lana gogora ekarri eta eskertzeko. Herritarrek etxean izan ditzaketen dokumentu eta argazkiak helarazteko deia egin dute.

Goiuria ikastola 1968an zabaldu zen, Durangaldean eta Euskal Herrian sortu ziren ikastolen mugimenduaren barruan. Zabaldu eta lehenengo ikasturtean bertan zarratu behar izan zuten, eta herritar batzuek utzitako etxeetan zein elizako sakristian eman zituzten eskolak behin baino gehigotan, 1972an legeztapen bat lortu zuten arte. 1981ean, gurasoek eta Jaurlaritzak Maiztegi eskola publikoagaz bat egitea adostu zuten.

Orduko agiririk gehienak desagertu egin ziren sute batean eta 1983ko uriolen eraginez. Eta informazioa berreskuratzeko, sortzaile eta kide izandako gurasoak, andereñoak, ikasleak eta boluntarioak elkarrizketatzen dabiltza. Agiriak eta argazkiak batzen ere badabiltza, eta herritarrei horiek helarazteko deia egin diete (*goiuriaikastola@gmail.com*). Aurrerago, liburua eta ikus-entzunezkoa argitaratuko dituzte, ikastolaren historia kontatu eta transmititu dadin.

Liburua eta ikus-entzunezkoa argitaratuko dituzte, ikastolaren historia transmititu dadin

Zatoz AEKra

Euskalduntze maila guztiak (A1,A2, B1, B2,C1)
4. maila (C2)
Online ikastaroak
Autoikaskuntza (tutoretzatan oinarrituta)

Durango, Santanoste 4, behea · 94 681 73 49/607 159 205 · **abarrak@aek.eus**

Elorrio /Atxondo, San Juan 23, behea · 607 600 901 · **abizari@aek.eus**

Zornotza, San Pedro 3, behea · 607 151 917 · **zornotza@aek.eus**

Berriz / Zaldibar / Abadiño / Iurreta / Izurtza / Mañaria
662 966 827 · **durangaldekoaek@aek.eus**

DIRULAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA: mailaren bat egiaztatuz gero

UDAL GUZTIEK

Otxandioko turismo bulegoko bisitek %22ko igoera izan dute aurtengo abuztuan

Iaz 117 bisitari izan zituzten eta aurten 150era igo da kopurua. Herbeheretakoak, Poloniakoak eta Italiakoak, besteak beste

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO

Turismoaren ikuspegitik, abuztu ona izan da Otxandiorentzat. Iazko datuekin alderatuta, turismo bulegora joan den bisitari kopurua %22 igo da hile horretan: 117tik 150era.

Turismo bulegoko arduradun Mikel Sanchezek dio Otxandio Euskal Herriko erdigunean egotea izan daitekeela igoera horren arrazoi bat: "Euskal Herriko barrualdean interesgune asko dago eta turistek erdigunean eta toki denetatik gertu dagoen herri bat aukeratzen dute abiapuntu moduan. Mapa bat hartu eta erdigunea markatuta, Otxandio irtengo litzateke. Hiriburuak gertu daude, mendiak eta ibilbide asko ere bai... Askok herriko eta inguruko nekazaritza-guneetan hartzen dute ostatu", azaldu du.

Abuztuko bisitarien artean, %54 estatukoak izan dira, %42 Euskal Herrikoak eta %4 estatutik kanpokoak: Herbeheretakoak, Poloniakoak, Italiakoak eta Frantziakoak. Uztailean Luxenburgoko eta Belgikako bisitariak ere izan zituzten.

Otxandioko turismo bulegoa iraila amaitu arte egongo da zabalik, barikutik domekara.

Turismo bulegoa irail osoan egongo da zabalik, barikutik domekara.

Bisitarien %54 estatukoak izan dira, %42 Euskal Herrikoak eta %4 estatutik kanpokoak

Bestalde, Javi Axpek bizikleta elektrikoak alokatzeko negozio bat du Otxandion, eta abuztuan lanpetuta ibili da. Gaur egun 12 bizikleta ditu, euretariko bi umeenak. Behin Herbeheretako familia batek zortzi bizikleta alokatu zizkion, eta Axpe eurekin joan zen Gorbeia ingurura, gidari. Belgikako bisitariak ere izan ditu.

Euskal Herriko bisitariei dagokienez, toki askotatik joandakoak izan dira, baina "batez ere Bilbo inguruko jende asko" joan dela gogoratu du. Estatuko bisitariei dagokienez, Albaceteko, Sevillako eta Toledoko turistekin jardun du, besteak beste.

Ikuspegi taberna zeramatenek Errekondo hartuko dute, Mañarian

MAÑARIA • J.D.

Asteon beste pauso bat eman dute Mañariko Errekondo taberna berriro zabaldu ahal izateko. Astelehenean kontratua sinatu zuten Mañariko Udalak eta taberna kudeatuko dutenek. Garai batean Goiuriako Ikuspegi jatetxea eraman zutenek hartu dute aurrerantzean Errekondo kudeatzeko ardura. Kudeatzaile berriek taberna ahalik eta arinen zabaldu gura dutela adierazi dute, baina oraindino ez dute data zehatz bat erabakita.

Une honetan, taberna bi daude zabalik Mañarian. Errekondo hirugarrena litzateke. Herriko tabernan obretan dabiltza.

Zakarrak lurrean sakabanatuta eta ermitako atea lurrean, Santo Tomasen

Uda sasoian, ekintza bandaliko bat baino gehiago gertatu da Izurtzako parkean

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Santo Tomas ermitak eta inguruko parkeak ekintza bandalikoen jomuga izaten jarraitzen dute. Ez da kontu berria uda sasoia heltzen denean, eta udaletik egoeraren inguruko kezka adierazi dute.

Uztail amaierako goiz batean, ermitako atea lurrean aurkitu zuten. Baten batek bere tokitik atera zuen bezperan. Udal arduradunek behin behinean brida batzuekin ermitara lotu zuten berriro atea, baina hurrengo asteburuan lurrean zegoen berriro. Azkenean, handik aste batzuetara, abuztuan zehar ate berri bat ipini zuten ermitan.

Santo Tomas parkeko edukiontzi berdea eta ermita.

Bestalde, joan zen asteko astelehen gauean, baten batek ermita ondoko zakarrontzia eta edukionzi berdea hustu zituen, eta barruan zegoen zabor guztia lurrean sakabanatuta utzi zuen.

Ez da horrelako ekintzak gertatzen diren lehenengo aldia. Behin baino gehiagotan aurkitu dituzte zaborrak lurrean utzita, batez ere uda sasoian, ekainetik irail bueltara. Lorea Muñoz alkateak "kezka" adierazi du egoera hau dela-eta. Esan du ez dela Izurtzan bakarrik gertatzen. Eskualdeko beste herri batzuetan ere gertatu da horrelakorik.

Mallabitik irten barik, munduko txokoak ezagutzeko aukera KZ guneko berbaldian

MALLABIA • J.D.

Irailean zehar, KZ Guneak askotariko gaiei buruzko berbaldiak antolatu ditu Interneten bitartez, 30 minutukoak. Hurrengo biak irailaren 28an —euskaraz— eta 30ean —gaztelaniaz— izango dira eta bidaiei buruz berba egingo dute. Munduko hainbat txoko ezagutzeko aukera egongo da ordenagailuko pantailatik. Parte hartzeko, nahikoa da KZ Gunearen youtube kanalean (Kzguneatic) sartu eta orri hori jarraitzen hastea.

Euskal Herri osotik ailegatutako hamar ardi-txakurrik onenak Garaiko landetan lehiatuko dira zapatu honetan

Euskal Herriko Artzain txakur txapelketa jokatuko den 54. aldia izango da. Lehia 17:30ean hasiko da, plaza ondoan

GARAI • EKAITZ HERRERA

Data, ordua eta lekua finkatuta daude. Orain, txapelketa jokatzea baino ez da falta. Euskal Herriko ardi txakurrik finenak Garain lehiatuko dira zapatuan. Herrialde bakoitzeko artzainik eta ardi txakurrik onenak bertaratuko dira, herrialde bakoitzeko txapelketan txapeldun eta txapeldunorde izandakoak. Tartean, Durangaldeko ordezkari bat ere bai: Karlos Ardanza abadiñarra. Mendi txakurragaz jokatuko du zapatuko lehia.

Aurrerantzean txandaka antolatuko dute lehia, Garain urte batean eta Atxondon hurrengoan

Txapelketa 17:30ean jokatuko da, San Migel auzoan, herriko plazaren ondoan, eta ikusleek debalde ikusi ahal izango dute. Txapelketa antolatzeko ardura nagusia Garaiko Udalak badu ere, Mankomunitateak, Gerediaga Elkarteak, EHATE Euskal Herriko Artzain Txakurren Elkarteak eta Urkiola Landa Garapenerako elkarteak ere lagundu dute antolakuntzan. Txapelketa jokatzen den 54. aldia izango da aurtengoa. Azken urteotan Axpen jokatu izan da, baina lehia Garaira lekualdatu dute aurten. Aurrerantzean txandaka antolatuko dute, Garain eta Atxondon.

Honako hauek dira lehiatuko diren 10 artzainak eta txakurrak:

ARABA

- Asier Bolibar artzaina eta Kobi txakurra (Olabezar, Aiara)
- Fidel Alonso artzaina eta Bat txakurra (Areta, Laudio)

BIZKAIA

- Karlos Ardanza artzaina eta Mendi txakurra (Abadiño)
- Enrike Mendiguren artzaina eta Laia txakurra (Orozko)

GIPUZKOA

- Jabier Zubiaurre artzaina eta Mendi txakurra (Mutriku)
- Aitor Tato artzaina eta Nabar txakurra (Ataun)

2016an Axpen jokaturiko Euskal Herriko artzain txakurren txapelketaren une bat.

Plazaren ondoko landa batean jokatuko da txapelketa, San Migel auzoan

NAFARROA

- Jorge Oteiza artzaina eta Lagun txakurra (Oronoz-Mugairi, Baztan)
- Aritz Ganboa artzaina eta Txistu txakurra (Arruazu, Sakana)

LAPURDI, NAFARROA BEHEREA ETA ZUBEROA

- Michele Atxeritogarai artzaina eta Izar txakurra (Iholdi, Nafarroa Beherea)
- Roger Jauretxe artzaina eta Ximist txakurra (Baigorri, Nafarroa Beherea).

Bestalde, domekan, *Bideak* dokumentala eskainiko dute Elizaberrin. 18:30ean izango da.

Leire Vargas durangarraren poema liburua Irun Hiria sarietan saritu dute

Leire Vargasek abenduan kaleratuko du 'Dena ametsa den irudipena' poema liburua

Irun hiria literatura saria.

Leire Vargas durangarra.

DURANGO • A.M./M.Z.

Leire Vargas durangarra Irun Hiria sarietan saritu dute *Dena ametsa den irudipena* poema liburuagaitik, euskarazko poesiari dagokion sailean. Vargasek 15.000 euro jasoko ditu. Irun Hiria Kutxa Literatura sariek inoizko parte hartzerik handiena izan dute, antolatzaileen esanetan; 44. aldia izan dute aurtengoa.

Leire Vargas itzulpengintza ikaslea da, eta ANBOTOko kolaboratzailea ere bada. '*Dena ametsa den irudipena*' poema liburua Elkar argitaletxeak kaleratuko du, abenduan.

Bere lehenengo liburua izango den arren, Vargasek bere bigarren itzulpen lana argitaratu zuen uztailean: Sally Rooneyren *Soldata jauna* narrazioa.

Durangaldea asteon

Mendi istripuetan hildako mendizaleak gogoratuko dituzte domekan Besaiden

Durangaldea I Mendi istripuetan hil diren mendizaleak gogoratzeko eguna izango da irailaren 19a, domeka. 11:00etan oroimen ekitaldia egongo da. 11:30ean, zenbait lagunek hitza hartuko dute. Goizean zehar txosna bat egongo da zabalik, janariagaz eta edariagaz. Bestalde, antolatzaileek jakinarazi dute COVID-19aren aurkako neurriak hartuko dituztela.

Maria Agirre Bazeta abadiñarrak familiaz inguruta ospatu zituen 100 urteak

Abadiño I Maria Agirre Bazeta abadiñarrak 100 urte egin zituen joan zen irailaren 12an. Familiagaz batera ospatu zuen urtegun berezia, Ereñan (Berrizen). Era berean, Abadiñoko San Trokaz nagusien elkarteko kideek omenalditxoa egin zioten. Birlobek inguratuta amatau zituen pastelean ipinitako kandela guztiak.

Iritzia

ESKERRIK ASKO, MAITANETXU

Jaiotza. 1994ko abenduak 12. Elorrion. Ilehoria. Ibiltzen eta hitz egiten lehenengoetarikoa. Euskalduna. Irribarretsua. Polita.

Lehen eta bigarren hezkuntza, batxilergoa, ingeles ikasketak, alemana. Atzerrian egonaldiak: Hego Afrika, AEB, Alemania... Feminismoa, militantziak. Medikuntza ikasketak, Erasmusa, MIR azterketa. Espezialitatea: Barne Medikuntza, Alemanian. Beldurrik ez abentura eta desafio berriei. Inteligentea, umila, langilea.

Oinezean baino, korrika nahiago. Aldapan gora eta behera, lisuan baino. Krosak, pista, asfaltoa. Serieak. Mendia. Alluitz, Anboto, Udala. Pirinioak, aukeran Ordesa eta Panticosa. Bavariako alpeak. Via ferratak, eskalada. Abila, kementsua, indartsua.

Beti irribarretsu, beti alai. Lagun ona. Gardena, azpijokorik gabekoa. Txarrik egingo ez dizula badakizun pertsona horietakoa. Umoretsua. Ilusioz eta bizi grinaz betea, beti plan berrien bila. Bizipoza. Behin bakarrik ezagututa ere, ahazten ez duzun pertsona horietakoa.

6 urte dira elkar ezagutu genuela. Biontzako lehenengo amodioa. Bikote soila baino, bizi-kideak. Baserria erosteko plana, Elorrion, noski. 3 umetxo eduki nahi zenituen, niretzako larregi. Ezkontzaeraztuna oparitzeko galdegiten zenidan maiz.

Handia zinen, Maitanetxu, ikaragarria. Goiz joan zara, goizegi, ustekabean, 26 urterekin, bizitza osoa aurretik. Eskerrik asko bihotzez, zu ezagutzeko aukera emateagatik. Ez zaitugu sekula ahaztuko.

Musu handi bat, zauden lekuan zaudela.

Beti maiteko zaituen zure Ikertxoren partez.

Iker Villanueva

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE

Arazoa konpondu behar dugu

Azken egunetan Durangon asko ari gara hitz egiten botiloiari buruz. Uda baino lehen arazoak egon ziren Zuhatzolako parkean, baina inguru horretan jende gutxiago bizi denez, gatazka ez zen hainbeste hedatu. Abuztuan arazoa Santa Anako plazara desbideratu zen.

Arazoa guztiona da, eta ez bakarrik kaltetutako bizilagunena. Gainera, arazo horretan denok dugu arduraren zati bat: erakundeak, ez garelako gai izan haiei aisialdirako alternatiba bat eskaintzeko; gurasoek, ez baitute jakin haien seme-alabei zaborra jaso behar dela transmititzen; eta, azkenik, gazteek, uste baitute pandemiaren gaia ez doala haiekin.

Gobernu taldeari (EH Bildu- Elkarrekin Podemos Herriaren Eskubidea) Santa Ana plaza hesitu behar zutela adierazten zuen alkatetza dekretu bat ateratzea besterik ez zitzaion bururatu. Bandoen bidez erabaki horren berri izan genuenean denok imajinatu genuen bezala, hori ez da ezeren konponbidea izan. Horrek gazte horiek beste leku batean elkartzea baino ez du ekarri, Zuhatzola parkera (berriz ere) eta batez ere Tabira parkera mugituz. Benetan uste zuten Santa Anan dauden bi tabernak errugabeak izanik ixtera behartzen zituen neurri hori ideia bikaina zela?

Egoera horren guztiaren azterketa sakonagoa egin behar dugu. Pedagogia asko landu; elkarrizketa, prebentzioa eta alternatiba erreal eta eraginkorrak bilatuz; eta ez zentzurik gabeko burutazioak izan. Eta hori guztia San Faustoko ez-jaiak hurbil ditugunean.

IURRETAKO UDAZKEN KULTURALA 2021

Leihor Elorriaga

UDAZKEN KULTURALA 2021

Arduraz gozatu!

Iurreta
Eleizateko Udala

Iurretako Udazken Kulturala 2021

Irailak 25, zapatua

11:00/14:30 Emakume sortzaileen azoka. Plazan

19:30 Puro Relajo. Askondoko karpan

20:00 'Izarretako lore' Joseba Sarrionandiaren 'Gau ilunekoak' liburuan oinarrituriko umeentzako antzerki estreinaldia (4 urtetik aurrera, familian ikusteko). Plazan

Irailak 26, domeka

9:30 Mugarri Ibilbidea **Mendi Martxa**. Irteera plazatik.

18:00 Amak kontzertua. Plazan

Irailak 28, martitzena

18:30 Iurretako dantzariak. Plazan

20:00 Txalainak kontzertua. Plazan

Irailak 29, eguaztena

12:30 Iurretako dantzariak. Plazan

17:00 Udako zirkua familia osoari zuzenduriko ikuskizuna 'Malas Companies'-en eskutik. Plazan

Urriak 1, barikua

19:00 Antzerkia Askondon **Miss Spain** ikuskizuna (Gaztelaniaz).

20:00 Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Gorka Pagonabarraga, Erika Lagoma, Jone Uria eta Jon Maia. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Plazan

Urriak 2, zapatua

18:00 Mikel eta Esti Markez kontzertua. Plazan.

21:00 Addar eta Leihotikan kontzertua. Plazan.

Urriak 3, domeka

12:45 Iurretako dantzariak. Plazan

17:00 Pirritx, Porrotx eta Marimotots ikuskizuna. Plazan

Urriak 7, eguena

18:00 Bingo tonbola Askondon.

19:30 Iñaki Uribesalgo soinujolearen emanaldia. Askodon

Urriak 8, barikua

21:00 Pilota partiduak.

Urriak 10, domeka

11:00/14:00 XXII. Nekazaritza eta artisautza azoka. Probalekuan

Urriak 16, zapatua

17:00/19:00 Auzo eskolei esker hezkuntza guztion eskure **erakusketa. Askondon**

Urriak 17, domeka

9:00/15:00 Herri kirolak

11:00/14:00 Auzo eskolei esker hezkuntza gure eskure, erakusketa. Askondon

12:00 Joxe Garmendia EHUko irakaslearen hitzaldia. Askondon

Lehior Elorriaga

Lehior Elorriaga

Besteak beste, musika kontzertuak, mendi martxa eta dantzariak Iurretako Udazken Kulturalean

Irailaren 25etik urriaren 17ra bitartean hainbat ekintza egongo da Iurretan, 2021eko Udazken Kulturalaren barruan

Amak taldeak kontzertua emango du irailaren 26an.

IURRETA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Irailaren 25ean hasi eta urriaren 17ra bitartean hainbat ekintza izango da Iurretan, Udazken Kulturalaren barruan. Emakume sortzaileen azokagaz emango diote hasiera egitarauari, irailaren 25ean. Azoka plazan egingo dute, eta sortzaileen lanak 11:00etatik 14:30era egongo dira ikusgai eta salgai.

Bestalde, iluntzean, Joseba Sarrionandiaren *Gau ilunekoak* liburuan oinarrituriko *Izarretako lore* umeentzako antzezlanaren estreinaldia eta Puro Relajoren kontzertua egongo dira.

Puro Relajoren kontzertua ez da Iurretako Udazken Kulturaleko bakarra izango. Irailaren 26an, esaterako, Amak taldea plazaratuko da, eta irailaren 28an Txalainak taldea joko du. Urriaren 2an, 18:00etan, Mikel eta Esti Markez aita-alabak arituko dira kantuan plazan, eta gero, 21:00etan, Addar eta Leihotikan taldeen kontzertua izango da.

Dantzari eta bertsolarien saiorik ere ez da faltako Iurretako Udazken Kulturalean. Dantzariek irailaren 28an, irailaren 29an eta urriaren 3an irtengo dute plazara, eta bertsolarien saioa urriaren 1ean izango da, 20:00etan. Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Gorka Pagonabarraga, Erika Lagoma, Jone Uria eta Jon Maia arituko dira bertsotan. Maite Berriozabal izango dute gai jartzaile.

Horrez gainera, beste hainbat ekintza ere izango dira. Irailaren 26an, Zaldaik antolatuta, Mugarri Ibilbidea mendi martxa egongo da; irailaren 29an, zirkuantzerki familiarra; urriaren 1ean, Anderebidek antolatuta, *Miss Spain* ikuskizuna; eta urriaren 2an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen txanda izango da. Urteroko nekazaritza eta artisautza azoka ere egingo dute, eta baita bingo tonbola, pilota partiduak eta herri kirolak ere.

Irailaren 25ean, emakume sortzaileen azoka egongo da Iurretako plazan

Gonbidapenak beharrezkoak

Egunean bertan aforoa bete arte Udazken Kulturaleko ekintzetara joan gura dutenek aldez aurretik gonbidapena hartu beharko dute. Gonbidapenak aurrez hartzeko aukera egongo da, irailaren 22an, Iurretako plazan. Iurretan erroldatutakoek 19:00etan hartu ahalko dituzte, eta gainerako denek 19:30ean. Egunean bertan aforoa bete arte ere egongo dira eskuragai gonbidapenak, baita emailez ere, *aittesanmigel@hotmail.com* helbidera idatzita.

Puro Relajoren kontzertua, *Miss Spain* antzezlana eta pilota pardituak ikusteko sarrerak Ibarretxe kultur etxean hartu beharko dira.

“Konturatu nintzen neskek ere euren espazioa dutela plazan, eta dokumentazioa batzen hasi nintzen bigarren libururako”

Joseba Agirre 'Iketza' iurretarrak 'Tanboliña dabil' liburua kaleratu du. 260 argazkitik gora jaso ditu bertan

IURRETA • JONE GUENETXEA

Dantzarien argazki eta bideoak biltzen zalea izan da beti Joseba Agirre 'Iketza' dantzari iurretarra. 2004an, 'Iurretako dantzariak, 1891-2004' liburua kaleratu zuen, Dantzari Dantzan oinarrituta. Orain, emakume dantzarien argazkiak ere batu ditu, Dantzari Dantzan talde parekidearen sasoira artekoak. 1953tik 2019ra arteko 265 argazki bildu ditu. Urrijenan parte hartu zutenek liburua doan jasoko dute Iurretako kopistegian. Gainerakoek 8 euro ordainduta.

Joseba Agirre Agirre 'Iketza'
Dantzaria
IURRETA | 1959

Zelan sortu da proiektua?

Aurreko liburuan, 1891tik 2004ra arte mutilen Dantzari Dantzan oinarrituriko argazkiak bildu nituen. Kasu hartan, 150 argazki jaso nituen. Konturatu nintzen neskek ere euren espazioa dutela plazan, eta dokumentazioa batzen hasi nintzen bigarren libururako. Zaharrena 1953koa da. Sasoi hartako irlanderen taldeko argazkia da zaharrena. 1800. urtean Humboltek esan zuen neskek ere dantzan egiten zutela Iurretan. Beraz, aspalditik neskek ere euren protagonismoa izan dute. 1837an, Carlos Erregeak ere Iurretako plazan nesken ilara bat dantzan ikusi zuela jasota dago. Neskek soka dantza egiten zuten plazan. 1973an, Durangon Euskal Jaia egin zenean, estanpa, gorulari eta zinta dantza egin zituzten. Hantxe egon ziren Tiliño eta Iñaki Irigoien. Dantza horiek batu eta Iurretan ere atera zituzten. Bestalde, 1995ean, nesken aurreskua eta atzeskua atera zituzten plazara, euren kantuagaz. 2014ko Urrijenan, emakumeak parte hartzen hasi ziren. Ondoren, 2018an, Dantzari Dantzako neska eta mutilen taldea etorri zen. Eta, azkenik, 2019ko Urrijenan talde misto biek ere parte hartu zuten.

Bazen sasoia emakumeen dantzaren protagonismoa erakusten duen liburua kaleratzeko. Lehenengo liburuan mutilak bakarrik agertzen ziren.

Pentsatu ere ez nuen egin. Dantzari Dantzan zentratuta egon nintzenez, ez zen gorularirik ez estanparik sartu. Sasoi hartan, Dantzari Dantza mutilek baino ez zuten egiten. Orain neskek ere egiten dute. Eta zergaitik ez? Lehenengoz irten zutenean, neu ere urduri egon nintzen, baina gero txaloka amaitu nuen.

> ***Jende askok lagundu dit. Txebi Arriagak, Iñaki Irazabal 'Kiña'-k eta beste hainbat pertsonak***

Dokumentazio hau guztia jasotzeko, zein laguntza izan duzu?

Jende askok lagundu dit. Txebi Arriagak, Iñaki Irazabal 'Kiña'-k eta beste hainbat pertsonak. Horrez gainera, Anton Mari Aldekoa-Otaloraren sarrerako testua eta Eñaut Aiartzaguenaren kopla batzuk jaso ditugu. Edu Briñasek Iurretakopin maketazio lanean asko lagundu digu.

ASIMAIR COMPRESORES
SALMENTA ETA ASISTENTZIA TEKNIKO ZERBITZUA
Ertzilla ind., pab. 7, 8 eta 16.
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 202 415
asimair@asimair.com

Garage SAN MIGUEL
TallerXXI
ESPEZIALISTAK DIESEL ETA GASOLINA MOTOREAK KONPONTZEN
Dantzari auzunea, 8
IURRETA
Tel.: 946 811 479
garagesanmiguel@gmail.com
www.garajesanmiguel.es

INSTALAZIOAK ETA BERRIKUNTZAK ALDA S.L.
- Iturgintza
- Berogailua
- Gasa
- Igeltserotza
- Gremioen koordinazioa
C/ Uralde, 8 bajo
482015 IURRETA
Tel.: 94 681 20 86
cons.alda.sl@gmail.com

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak
Betikoak flexografía
946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

AMAYA AUTOEN KONPONKETAK S.L.
UAI, 1 industrigunea (Orozketa errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
Tel.: 946 812 123 / Faxa: 946 203 818
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

HEKi
HERRI KIROL KLUBA
Tel.: 656 782 552
heki.iurreta@gmail.com
Heki Herri Kirol Kluba
Umeentzako erakustaldiak eta antolaketak

1973. urtea. Iurretako dantzariak.

1953. urtea. Iurretako eskolako dantzariak.

1995. urtea. San Migel Eguna. Soka dantza berreskuratu eta gero, neskek dantzatu zuten lehenengo aldia.

UDAZKEN KULTURALA 2021 Iurretan
Jairik ez da izango ta ez aztoratu udazken kulturala baitugu osatu. Errespetuz ibili, seguru jokatu eta kulturaz ahalik gehiena gozatu
aitte san migel jai batzordea

URALDE KLINIKA DENTAL
Begoña Zubimendi Goxencia
Uralde 1, Bajo
Esquina Bixente Kapanaga
48215, Iurreta, Bizkaia
667 097 575 · 946 550 055
info@klinikauralde.com
www.klinikauralde.com

Zuremenua
Katering zerbitzuaK
688 614 162 • info@zuremenua.com

BAÑOS IURRETA
Erakusketa eta komuneko osagarrien salmenta
ITURGINTZA BEROGAILUA GASA
Tel-Faxa: 946 202 433
NICO: 629 233 318
Email: b.iurreta@yahoo.es
Maspe kalea, 4 - 48215 Iurreta

Afro Vasco
Iurretako BATZOKIA
Eskaintza zabala:
eguneko menua,
ogitartekoak, pintxoak,
errazioak eta abar.
Hurbildu zaitez!
Bixente Kapanaga, 21
Tel.: 946 032 021 / 632 249 869

GERLARI
KIROL ZENTROA
JORGE HURTADO Zuzendaria
622 753 458
jorgehurtadonieves@gmail.com
Dantzari kalea, 6 behea
48215 Iurreta (Bizkaia)

Vakasa
Mertzeria
Fray Juan Askondo 1
Iurreta
688 611 737

Gaargi
Dantzari, 4 - behea
IURRETA
Tel.: 944 356 674
Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak,
errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

iBAi-ONDO KAFETEGIA
Goizeko 06:00etatik
aurrera gosariak eta pintxoak
Bixente Kapanaga, 11 • 48215 IURRETA
☎94 620 21 57

ELECTRODOMÉSTICOS
IZARBE
Lámparas • Artículos de regalo • Muebles de cocina y Hogar
TIEN 21
Especialistas en Electrodomésticos
C/ Bixente Kapanaga, 3
48215 IURRETA / Bizkaia
Telf.: 94 681 22 80
Fax: 94 621 63 36
izarbek@izarbek.com

IURRETA
HARATEGIA FRUTA - DENDA
Bixente Kapanaga, 4 - IURRETA
Tel.: 687 568 200

Sarrionandiaren ipuin batean oinarritutako 'Izarretako lore' antzerkia estreinatuko dute

Umeei zuzendutako ipuin antzeztua irailaren 25ean taularatuko dute Iurretako plazan, 20:00etan

ANTZERKIA • JONE GUENETXEA

Izarretako lore antzezlana Joseba Sarrionandiaren *Gau ilunekoak* liburuan oinarrituta dago eta zuzeneko margolana eta ipuin kontaketa batzen dituen ikuskizuna da. “Ilunerrian inork ez zuen ezagutzen zer kolore zeukan gauza bakoitzak. Izarretan dago argia!", esaten ei zuten zaharrek. Orduan, gazteek koloreak bilatzeari ekin zioten. Horrela abiatzen da idazle iurretarraren testuan oinarrituriko antzezlana. Sonia Villamor aktoreak, Gotzon G. Pildain aktore eta margolariak eta Ziara Garaizabal ilustratzaileak parte hartzen dute taula gainean. Joseba Sarrionandia idazlearen lana Peru Magdalenak egokitu du ikuskizunerako. Ander Garaizabalek sortu du musika.

Proiektua orain urtebete hasi zen martxan, Sonia Villamor aktoreak Sarrionandiaren ipuina irakurri zuenean. “Ipuina gustatu egin zitzaidan. Pandemiaren inguruan dena beltz ikusten genuen momentu hartan. Iluntasun horretatik zelan irten azaltzen du atzezlanak. Beste artistekin berba egin nuen eta kolorea zenbat behar genuen konturatu ginen", azaldu du Villamorrek. Aktoreak taula gainean gidoia interpretatzen duen bitartean, atzeko aldeko muralean koloredun marrazkiak sortzen dituzte. Oihal beltz batean marrazten dute. "Hasierako hizkuntza oso poetikoa da, eta umeentzako espektakuluetan horrelako hizkuntza erabiltzen ohituta ez gaudenez, ikusten genuen beste elementu batzuk ere behar genituela", dio antzezlaneko aktoreak.

> ***Ikuskizunerako iluntasuna behar dutenez, umeentzat ezohiko orduan izango da, 20:00etan***

Atzean marrazten dena bakarra izango da antzezlan bakoitzean, beti ere abiapuntu berdina hartuta. “Antzerkiak duen 'orain' eta 'hemen' ezaugarriak kontuan hartuta, margolaneko elementu batzuk aldatu egin daitezke antzezlan batetik bestera”, esan du. Ikuskizunerako iluntasuna behar dutenez, umeentzako ikuskizuna ezohiko orduan taularatuko dute, 20:00etan, irailaren 25ean.

MARGOTU

Margotu beheko irudia zenbaki bakoitzari dagokion kolorea errespetatuz



LABIRINTOA

Labirinto honetan egin bidea zentzu gehien duen sekuentzia jarraituz.

“Bo... kakingarria!”

Zu ere harrituko zara, edo ez. Poztu, edo haserretu. Baina ziur baduzula interesa eta zeresana. Jakin-mina eta irizpidea duzulako. Giroan zabiltzalako.

berria
zuk badakizulako

'Zuhaitzak landatzen zituen gizona'

ANTZERKIA **DURANGO :: Irailak 18 eta 19**

Bakarrik sentitzen diren gizon biren arteko adiskidantza

Durangaldeko Gorakada konpainiak bere azken ikuskizuna estreinatuko du Durangoko San Agustin kulturgunean, asteburuan: *Zuhaitzak landatzen zituen gizona*. Antzezlanak Jean Giono idazle frantsesaren izen bereko obra du oinarri, eta bakarrik sentitzen diren gizon biren arteko adiskidantza kontatzen du, Europaren historiako gorabeherak, mundu-gerra biak edo kontzientzia ekologikoaren sorrera baliatuz testuinguru lez. José Carlos García da obrako zuzendaria, eta bere esanetara taularatuko dira Fran Lasuen eta Sandra Fernández Agirre aktoreak. Zapatuan eta domekan saio bana eskainiko dute, 18:00etan hasita.

Irailaren 17an

BERRIZ antzerkia
'Nudó' (Rojo Telon konpainia), 18:30ean, Olakueta plazan.

ELORRIO musika
Girls Band, 20:00etan, Arriola antzokian.

MAÑARIA musika
Bulego, 18:30ean, plazan.
Kai NaKai, 20:15ean.

Irailaren 18an

DURANGO jarduerak
Mugikortasun astea: askotariko jarduerak, jolasak, tailerrak eta mountan-bike zirkutua, Zumalakarregi, Barandiaran eta Sanagustinalde kaleetan eta Benita Uribarrena parkean.

ELORRIO musika
Sugoi eta Segundo Traste, 20:00etan, Ganondo parkean.

IURRETA musika
Kontzertua: Parkatu + Laru, 19:00etan, Iurretako Gaztetxean. Ondoren, **Dj EIXU**.

MAÑARIA bertsoak
Bertso jaialdia: Josu Sanjurjo, Eneko Fernandez, Erika Lagoma eta Eneko Abasolo 'Abarkas', 19:00etan, plazan. Ainhoa Urien izango dute gai jartzaile.

GARAI txapelketa
Euskal Herriko ardi txakur txapelketa, 17:30ean, Garaiko landetan.

ZORNOTZA musika
'La Guitarra Acompañada (Beethoven, Boccherini)' Bernardo Garcia Huidobroken eskutik, 19:30ean, Bernagoitiko San Migel elizan. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan antolaturiko kontzertua.

Irailaren 19an

ATXONDO azoka
Amillena Azoka, 10:30etik 15:00etara, Arrazolako Amillena bentan. Sortzaile eta artisauen azoka.
Musika zuzenean: KSKA, 12:30ean.

DURANGO jolasak
Jolasgunea, 11:00etan, Tabira parkean (euria bada, Landako Gunean).

DURANGO antzerkia
'Txotxongilo bertsolariak' (Toni La Sal eta Antzezkizuna Giñol Taldea), 17:00etan, Errotaritxuenako parkean.

DURANGO antzerkia
Urban Show: Freestayle, parkour, flatland, roller BMX eta trialsin, 18:00etan, Landako Gunean.

GARAI dokumentala
'Bideak' dokumentala, 18:30ean, Elizabarrin.

ZORNOTZA musika
Vocalia, 19:00etan, Etxanoko Andra Marian. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan antolaturiko kontzertua.

Irailaren 21ean

ZALDIBAR dokumentala
'Fabricando mujeres 2.0', 18:00etan, Liburutegi zaharrean. Ondoren, berbaldia.

Irailaren 22an

ZORNOTZA jarduerak
Mugikortasun astea: informazio-karpa,oztopo ginkana, bide-hezkuntzako zirkuitua, partybike eta 7 legoako bota tailerra, 17:00etatik 20:00etara, Zelaieta parkean eta Gudari kalean.

Irailaren 24an

BERRIZ zirkua
'Bidearen amaieran' (Hortzmuga konpainia), 18:30ean, eskolako patioan.

DURANGO musika
Organo kontzertua, 20:15ean, Andra Mariko basilikan. Musikeneko organo ikasleek eskainiko dute kontzertua: Ignacio Arakistain, Victor Perea eta Oscar Rodriguez.

ELORRIO dantza
'Kenofobia' (Osa+Mujika), 19:00etan, Arriola antzokian.

ZALDIBAR bertsoak
Bertso jaialdia: Miren Amuriza eta Aitor Mendiluze, 19:00etan, udaletxeko plazan. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Euria bada, eskolako pilotalekuan izango da saioa. Lekua mugatua da.

DUNE
Zugaza zinema

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Durango
ZUGAZA

· ***Dune***
barikua 17: 19:00721:00
zapatua 18: 18:00/21:00
domeka 19: 19:00
astelehena 20: 19:00
martitzena 21: 19:00
eguaztena 22: 19:00

· ***Sevillanas de Brooklyn***
barikua 17: 19:30/22:00
zapatua 18: 19:30/22:00
domeka 19: 19:30
astelehena 20: 18:00/20:15
martitzena 21: 18:00/20:15
eguaztena 22: 18:00/20:15

· ***Lazos***
barikua 17: 22:00
zapatua 18: 19:30/22:00
domeka 19: 19:30
astelehena 20: 18:00/20:15
martitzena 21: 18:00/20:15
eguaztena 22: 18:00/20:15

· ***Ninja a cuadros 2: misión Thailandia***
zapatua 18: 17:00
domeka 19: 17:15

· ***La patrulla canina***
zapatua 18: 17:00
domeka 19: 16:45

:: Elorrio
ARRIOLA

· ***Hijos del sol***
zapatua 18: 20:00
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00

:: Zornotza
ARETOA

barikua 17: 20:00
zapatua 18: 20:00
domeka 19: 20:00
astelehena 20: 20:00

Martxan da udako argazki lehiaketa.

Igo zure argazkiak irailaren 20ra arte

UDAKO
7. ARGAZKI
LEHIAKETA

anboto

Durangaldeko 2020ko argazkia
IRABAZLEA

Durangaldetik kanpoko 2020ko argazkia
IRABAZLEA

2 KATEGORIA SARITUKO DIRA
-ESKUALDEKO ARGAZKIRIK ONENA
-DURANGALDETIK KANPOKO ARGAZKIRIK ONENA

ANTOLATZAILEA anboto

LAGUNTZAILEAK databost informatika & telekomunikazioak · ERRIGORA · Garaiko Landetxea

Informazio gehiago www.anboto.org webgunean

“Ez genuen gura bigarren urte bat aurrez aurreko Durangoko Azokarik barik egon”

56. Durangoko Azoka abenduaren 3tik 8ra egingo da; iazko "salbuespeneko" edizioaren ostean, gune guztiak eta bertako egitaraua berreskuratuko ditu, bolumen txikiagoagaz

DURANGOKO AZOKA • ARITZ MALDONADO

Ekainetik, Beñat Gaztelurrutia da Gerediaga ekarteko kudeatzailea. Urteetan bazkidea izan eta gero, elkartearen barne funtzionamendua eta potentziala ezagutzen ari da orain. Plateruneko zuzendari lez hartu-eman estua izan du Durangoko Azokagaz hainbat urtean. 56. Durangoko Azoka antolatzea eta Gerediagaren lana Durangaldetik kanpora ezagutzera ematea ditu erronka, besteak beste.

Beñat Gaztelurrutia
Gerediaga elkartea
ABADIÑO | 1976

Durangoko Azokak bisitariak izango ditu berriro.

Ez da izango aurrekoen moduko azoka bat, baina aurrez aurrekoa izango da behintzat. Ez genuen gura beste urtebetez aurrez aurreko azokarik barik egon. Iazko harrera ikusita, Interneten bitartez erosteko aukera ere mantenduko dugu.

2019ko Azokatik hurbilago egongo da 2020kotik baino, aurrez aurrekoa izango da eta. Mugaz eta konplexutasunez beterikoa izango da. Gune guztiak berreskuratuko ditugu, eta egitaraua izango dute guztiek. Beharbada ez du edukiko 2019koaren besteko bolumena, baina martxan egongo dira gune guztiak.

Plateruena ere bai?

Ahotsenea Plateruenean bertan egotea gura genuke, iaz egin zen moduan. Eta uste dugu egongo dela aukera horretarako.

Gustatzen zait Ahotsenea Plateruenean egitea, leku naturala dela iruditzen zaidalako, lekuagaitik eta egindako ibilbideagaitik. Baina hori koordinazio mahaian adostu beharrekoa da.

Iazko Azoka positiboki baloratu zenuten.

Iazko Azokaren balorazio ona egin genuen, baina testuinguruan jarrita, beti ere. Iaz aukera bi zeuden: ez egitea, edo egin zenaren modukoa egitea. Azoka digitala egitea erabaki genuen, aurkezpen presentzial gutxi batzuk antolatuta tarteko. Helburua aurrez aurreko Azoka berreskuratzea da. Ez genuen gura bigarren urte bat aurrez aurreko Azokarik barik egon, egoera ez normalizatzeko.

Gauzak lortzea oso nekosoa da, asko kostatzen du, baina horiek galtzea oso erraza da, egun batetik bestera galdu daitezke. Ez genuen gura bigarren urte batez Azoka aurrez aurrekoa ez izatea. Gure helburua betiko Azoka errekuperatzea da, horrek ekarri beharko lituzkeen gauza guztiekin. Azokaz eta guneetako egitarauaz gainera, herrira datorren jendea, sortzen diren hartu-emanak, interakzio sozial hori errekuperatu gura dugu. Aurten hori dena lortuko dugu? Seguruenik ez, baina berreskuratzen hasiko gara.

> ***Ahotsenea Plateruenean bertan egotea gurako genuke, iaz egon zen moduan. Uste dugu horretarako aukera egongo dela***

Kudeatzaile lez hile gutxi batzuk daramatzazu, baina kulturgintzan urteak daramatzazu. Igartzen duzu presiorik?

Bai, jakina. Kontrakoa esango banu gezurretan ibiliko nintzen. Dena dela, momentu egokiaren zain egonez gero, bizitzan erabaki gutxi hartuko genituzke. Hauxe da dugun egoera. Beste urte batzuetan baino estuago egongo gara, baina denok; estuago egongo gara gu, eta baita taberna bat zabaldu behar duena ere. Gero, kezka edo presio pertsonala ere badut, nire lehenengoa izango delako, eta denak ondo irtetea gura dudalako. Baina Azokaren bueltan lanean gabiltzan denok dugu presio hori, bazkide zein langile; euren onena atara guran dabiltzala igartzen da.

Zerk erakarri zaitu gehien erronka hau onartzeko?

Bizitzako ibilbidean beste atal bat zabaltzeko aukera lez ikusi dut. Ez dut uste beti ibili naizen lekutik oso aparte nabilenik; hau da, esparru berean jarraituko dut, herri mailan, kulturgintzan bakarrik ez, gizartegintzan, herri elkarteetan lanean, pertsonentzat. Hori oso eremu aberasgarria iruditu zait beti, eta horren jarraipen lez ikusi dut hau, eta horrek erakarri nau. Durangoko Azokagaz lotzen da Gerediaga, baina Durangaldean badakigu ez dela hori bakarrik; ibilbide historikoa duen elkartea da, ertz asko ukitzen dituena, eta hori bera oso erakargarria zait.

Zuzendaritza ere aldatu du Gerediagak. Esku artean zein proiektu eta erronka dituzue?

Niretzat, hasiberritan, gatx egiten zait honi erantzutea. Elkartearen jarduna, bazkide moduan, ezagutzen nuen, baina barrutik orain ari naiz ezagutzen. Oraintxe nabil neurtzen noraino heldu daitekeen gaitasuna. Gauza bat da zer egin gura den, eta beste bat zer egin daitekeen. Orain, zuzendaritza batzordea aldatu dela, jendea aktiboki parte hartzeko gogoz dago; sortu daitezkeen proiektu berriak erabaki eta aurrera eramango dira.

Nire ustez, Gerediagaren lana ez da behar besteko ezaguna. Beraz, Gerediagak bere lana hobeto ezagutarazi beharko luke Durangaldeko zein Euskal Herriko gainerako herrietan. Eta gero, helburu orokor modura, egingo dituen ekimen guztiak gaur egungo gizartearen neurrira egin beharko lituzke.

Sormen Bekaren laugarren deialdia martxan

Laugarren urtez, Gerediaga elkarteak Sormen Beka antolatuko du. Oraingo honetan, parte hartzaileek praktika artistiko batean oinarrituriko lan digital bat sortu beharko dute. Irailaren 21era arte egongo da izena emateko aukera. Horrez gainera, Durangaldeko sortzaileek Gerediagaren erakusmahaian euren lanak erakusteko aukera edukiko dute beste urte batez. Durangaldeko musikari, idazle eta sotzaileak izena ematera animatu ditu Gaztelurrutiak.

“Imajinatu gura nuke 'Nora' aurtengo sarietan sorpresa bat ematen”

Lara Izagirre zine zuzendari zornotzarra 'Nora' bere bigarren lana aurkezten ari da herrikideen aurrean

ZINEMA • ARITZ MALDONADO

Lara Izagirrerentzat "festa" bat da 'Nora' pelikula herritarren aurrean aurkeztu ahal izatea. "Herriak niri emandakoa herriari bueltatzeko aukera da pelikula astebetez bertan aurkeztea". "Hunkituta" dago jasoriko harreragaz.

Zelako astea izaten ari da?

Abuztuaren 25ean hasi ginen promozioagaz, eta ordutik hona ez gara gelditu; Madril, Bartzelona, Getxoko autozinea, eta, gero, zinema aretoetako estreinua. Irailaren 10ean, nire urtegunean, Zornotzako aurkezpenei ekin genien. Oso polita izaten ari da.

Nire ustez, zornotzarrentzat festa bat da. Garai hauetan eskertzekoa da argitasun apur bat. Albiste ilun asko egon da uda honetan, eta herriak eman didana hari bueltatzeko aukera da pelikula. Niretzat oso polita da maite dudan jendea zinema aretoan ikustea egunero. Pelikula gogoko dutela uste dut.

'Nora'-k bizitzeko gogoa transmititzen duela esango nuke.

Hasieratik, pelikula polit bat egin gura genuen, besarkada baten parekoa izatea gura genuen. Azken sasoian ia debekatuta eduki dugu besarkatzea, eta orain publikotik esatea pelikula besarkada bat jasotzearen modukoa dela oso polita da

> ***Izarok oso erraz konektatu zuen pelikularen arimagaz; kolaborazio polita izan da, elkar eragin duena***

Zein garrantzia du Zornotzak zure zinemagintzan?

Gertuko gauzak kontatzen ditut, eta emakume protagonistak herri batean kokatu behar ditudanez, Zornotzan egin dut. Niretzat errazena da, ezagutzen dudalako. Gainera, zintzoena iruditzen zait. Zergaitik aukeratu beste herri bat nirea dudanean? Gainera, Zornotza ez da homogeneoa herri lez. *Un otoño sin Berlín*-eko Zornotza eta *Nora*-koa ez dira berdinak. Grabatzeko herri bat behar dudanetan, bertan grabatzen jarraituko duda-la uste dut.

Lantaldean zornotzarrak egoteak lagunduko du.

Gaizka Bourgeaud argazki zuzendaria ere zornotzarra da. Beragaz lan egitea oso erraza da, biok zerbait imajinatzean antzerakoa imajinatzen dugu. Kostaldeko herri batekoak ez izatera, kostaldea zelan ikusten dugun erakusten dugu. *Nora* pelikulan lez, Zornotzatik irten eta bueltatzen ari gara, bertan grabatu ostean, aurkezpenak egitera.

Izaro Andres mallabitarrak ere parte hartzen du pelikulan. Nolatan?

Izaroren musika ezagutzen nuen, eta oso gustuko dut. Bera ez nuen ezagutzen, baina istorioa kontatu nionean, oso erraz konektatu zuen pelikularen arimagaz. Esango nuke amaierako zati hau dabilela izaten ederrena. Uste dut oso kolaborazio polita dela, elkar eragiten duena.

Zein izango da pelikularen ibilbidea hemendik aurrera?

Ez dakigu zenbat gehiago egongo den zinemetan. 3-4 astez jarraituko duela esango nuke. Gero, ez dakit. Imajinatu gura nuke *Nora* aurtengo sarietan sorpresaren bategaz. Gustatuko litzaidake Ane Pikazak edo Izarok sariren bat eramatea; Aneren lan ederrak aktore hasi berrien kategorian, edo Izarorenak musikaren kategorian aukerak eduki ditzaketela uste dut.

Gai librean

EZ (U)DA

Uger egitea terapeutikoa da. Atseginez zoazenean, arnas eta besakada akonpasatuan, ia-ia oharkabean 40 luzeko kilometroa gainditzean. Martitzen batean, adibidez. Astinaldi bat urrutiko hondar alez pla-pla datozen piszinako betaurrekoei, hor dirau udak oraindik. Ez luze. Errealitatearen hare arrea filtro urdin artifizialeko kristaletan. Ez dizu astirik eman tapoiak belarrizuloetan sartzeko. Alboko errailetik notizia: atzerrian bihotzekoak jota hil den herrikide gazteegia —efimeroa izango ez den hotzikara—, bere buruaz beste egin duten bi —heriotza-arrazoi nagusietako bat da gurean suizidioa—, eta bilaketa handi bat —helikoptero, txakur eta guzti—. Fatalitatea, tristura, nekea, abandonua, noraez sistemikoa. Denak aste bakarrean. Eta zu igerian. Takikardia eta takipsia kolpean: bihotza arin, pentsamendua azkar. Nola egiten da uger ito-pasada betean?

Libe Mimenza Castillo
Kazetaria

> ***Fatalitatea, tristura, nekea, abandonua, noraez sistemikoa. Denak aste bakarrean. Eta zu igerian.***

> ***Takikardia eta takipsia kolpean: bihotza arin, pentsamendua azkar. Nola egiten da uger ito-pasada betean?***

Urgentea da bapatean biharko utzitako dena. Faltan sumatzen duzunari deitzea. Gustura sentiarazten zaituztenez inguratzea. Ezagutu nahiko zenukeenari ate bat irekitzea. Edo leiho bat. Balkoi bat, lore eta guzti. Hondartzan biluzik pasa duzun egun bakoitzean buruko marasma-habiak nola askatu diren oroitzea. Masailezurra estutu gabe lokartzea. Bizkar-uzkur baino lepo-tente bizitzea. Zaren bezala. Hori nahikoa delako segurtasuna jantzita. “Zelan” galderaren aurrean “ez ondo” edo “ez dakit” erantzuten hastea, “aldatzen” zaudelako. Baikortasun dogmatiko batez esnatzea. Begietara begiratzen duen jendea. Mosuak. Besarkadak. Intimitate erradikala, konplexu gabea, naturala. Egunsentiak mendian, lotsagorritzeko iluntzeak eta lagunak. Herri galduak, plater goxoak eta ezezagunak. Udako kantua buklean. Edo deitu maitasuna.

Urgentea da bapatean uda balitz bezala bizitzea.

Ez (d)uda.

Silvia Trigueros abadiñarrak hirugarrenez jarraian irabazi du Tor des Geants proba mitikoa

Marka hori lortu duen korrikalari bakarra da; Franco Collek ere hiru bider irabazi du gizonetan, baina ez segidan

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

Silvia Trigueros abadiñarrak beste balentria bat lortu du bere proba kutunean. Italiako Tor des Geants lasterketa luze eta nekagarria hirugarrenez jarraian irabazi du asteon. Marka hori lortu duen korrikalari bakarra da. Gizonetan aurten irabazi duen Franco Collek ere hiru garaipen ditu, baina ez bata bestearen atzetik. Emakumeetan, orain arte Anne Marie Gross, Francesca Canepa eta Lisa Borzani korrikalariekin garaipen bigaz berdintuta zegoen Trigueros. Orain, emakumeen sailkapen historikoan bera dago lehenengo.

Domeka goizean irten eta eguen goizaldean heldu zen helmugara. Honakoa bere denbora: 89 ordu eta 57 minutu. 2019an berak ezarritako markatik lau bat ordura geratu zen: 85.23.15. Probaren atarian, Triguerosek posible ikusten zuen denbora hobetzea, baina 350 kilometrotan zehar —ia 30.000 metroko desnibel positiboagaz— denerik gertatu zaio. "Aurten, sekula gertatu ez zaidana gertatu zait; ezin nuen likidorik edan. Ondorioz, deshidratatu egin nintzen eta hankak puztu zitzaizkidan", gogoratu du. "Tripako minekin" ere sufritu du, ez zitzaion jaki solidorik sartzen eta eta gel-ekin elikatu da. "Normalean hiru-lau hartzen nituen, baina aurten hogei bat hartu ditut. Baina egoera txarrei buelta emateko kapaz izan naiz eta pozik nago", dio.

Silvia Trigueros Tor des Geants probako helmugan. TOR DES GEANTS / @ROBERTOROUXPH

Azkenengo hiru aldiak irabazi ditu: 2018koa, 2019koa eta 2021ekoa. Iaz ez zen proba lehiatu, pandemiagaitik

Asier Zarate senarraren laguntza eskertu du. Uneoro behar zuenean laguntzen aritu da: "Garaipen hau bion artean lortu dugu; merituaren erdia berea da", goraipatu du.

Mugarra Triatloi Taldeko gazteak goi mailan aritu dira Zumaian eta Beasainen

Paul Bereziartuak Euskal Herriko mendi duatloien bigarren lasterketa irabazi du

TRIATLOIA • J.D. / M.Z.

Paul Bereziartua 21 urteko durangarra udako entrenamenduen fruitua jasotzen dabil mendi duatloien txapelketako hasiera honetan. Orain asteburu bi, bigarren amaitu zuen Igantzin, eta joan zen asteburuan lehenengo Beasainen. Emaitza horiekin sailkapen nagusiko lider jarri da.

Bestalde, MugarraTTko gazteek emaitza bikainak lortu zituzten Zumaiako triatloian. Uxue Artiñanok garaipena lortu zuen kadete mailan, eta baita Paule Miotak ere juniorretan. 23 urtez azpiko mailan, Telmo Barrutia izan zen onena.

Dida taldeko Gorka Bizkarra seigarren geratu zen. Horrez gainera, triatloilari mañariarrak 20 onenen artean sailkatzea lortu du Gasteizko Ironmanean. Azkenik, Indarpak taldeko Alex Unzueta berriztarrak distantzia luzeko duatloi bat irabazi du Frantzian.

Paul Bereziartua, Uxue Artiñano eta Paule Miota.

Master Kaiolak txapelak banatuko ditu eta Olazar hastear dago

PILOTA • J.D.

Master Kaiola txapelketako finalak zapatu honetan jokatuko dituzte, 16:30ean, Zornotzako pilotalekuan. Afizionatuetan, lau t'erdiko torneorik prestigiotsuenetarikoa da. Gazte mailan, Igotz Bilbaok eta Ekhi Irribarriak neurtuko dituzte indarrak; 22 urtez azpikoan, Oier Ariztegik eta Sergio Gutierrezek, eta emakumeetan Leire Garaik eta Laia Salsamendik.

Master Kaiolako finalak zapatua honetan hasiko dira, 16:30ean, Zornotzako frontoian

Olazar txapelketa

Bestalde, Zaldibarko Olazar pilota txapelketa datorren eguenean hasiko da. 16 pilotari arituko dira lau t'erdian, eta 16 bikote binaka. Durangaldeak ordezkari bakarra izango du: Aimar Morgaetxebarria zornotzarra. Lagun Onak elkarteko pilotaria iaz estreinatu zen txapelketan eta oso errendimendu ona eskaini zuen. Gaizka Karregal galdakoztarragaz bikotea osatuz finalerdietara heldu zen. Aurten, Iker Espinal nafarra izango du bikotekide, afizionatuetan dagoen pilotaririk onenetarikoa.

Txapelketako jardunaldiak eguenetan jokatuko dira, 21:30ean. Finala abenduaren 31n izango da, urtero lez.

Sorginen Lasterketa, luzeagoa eta gogorragoa; asfalto zatia kendu eta mendi bideak sartu dituzte

Biharko mendi lasterketak hiru kilometro gehiago izango ditu, 21 guztira. Desnibel positiboa 400 metrotan gehitu da

Sorginen Lasterketak 320 parte hartzaile izango ditu; maiatzean, izen-ematea hasi zen egun berean agortu ziren dortsalak.

MENDI LASTERKETA • JOSEBA DERTEANO

Sorginen Lasterketak 14. aldia egingo du zapatuan. Aurten, nobedade bategaz dator ibilbideari dagokionez. Hasierako lau kilometro eta erdiak, Axpetik Arrazolarainoko tartea, asfaltotik eta bidegorritik egiten zituzten lehen. Aurtendik hasita, dena mendi bidetik egingo dute, antolatzaileek hasierako ibilbidea moldatu eta gero. Ehuneko ehunean ohore egingo dio 'mendi lasterketa' izenari.

Honako hau izango da aldaketa: Axpetik Mendigoikoa jatetxe inguru igo eta han baso bideetan sartuko dira. Ondoren, PR Bizkaia 85 ibilbideagaz bat egingo du eta haitz barrenetik joango dira Arrazolara. Han, Agarreko depositua dagoen inguruan bat egingo du ohiko ibilbideagaz.

Korrikalariek eurek ibilbideari buruz eginiko gomendioek eragin dute aldaketa. "Gure inguruetan dauden basoekin beste bideren batek egon behar zuela esaten ziguten korrikalariek. Gomendio hauek kontuan hartuta hasi ginen lanean", adierazi du Sorginen Lasterketa elkarteko Garazi Sampedrok. Elkarte horren eta Durango Kirol Taldearen artean antolatzen dute mendi lasterketa.

"Inguruetan dauden basoekin beste bideren batek egon behar zuela esaten ziguten korrikalariek"

Luzeagoa eta gogorragoa

Ibilbide aldaketak ondorio bi ditu. Batetik, lasterketa hiru bat kilometro luzeagoa izango da: 18 barik, 21 izango ditu. Bestetik, gogortasunean ere gora egingo du; Sorginen Lasterketak 1.700 metroko desnibel positiboa izango du, iaz baino 400 gehiago. Korrikalarien denboretan ere igarriko da aldaketa. Kalkulatu dute faboritoek hogei minutu edo ordu erdi gehiago beharko dutela ibilbidea osatzeko. Beraz, irabazlea ordu biren bueltan ibiliko da.

Korrikalariek izango dute azken berba aldaketa onerako ala txarrerako den baloratzeko orduan, baina orain arte jasoriko *feedback*-a aldekoa izan da. "Batzuek egin dute ibilbide berria udan, eta iritzi ona jaso dugu. Politagoa dela diote", esan du Sampedrok.

"Batzuek egin dute ibilbide berria udan, eta iritzi ona jaso dugu. Politagoa dela diote"

Faboritoak

Guztira, 320 parte hartzaile izango dira. Maiatzean zabaldu zuten izen-ematea eta plazak egunean bertan agortu ziren. Bihar 08:30ean Axpeko irteera puntuan egongo diren korrikalari guztien artean, hainbat faborito nabarmendu daitezke. Emakumeetan, Lide Urrestarazu ordiziarra, Ainara Uribarri oñatiarra, Eztizen Duque portugaletetarra, Nahia Quincoces mendexarra eta Araitz Villa abadiñarra daude hautagaien artean. Gizonetan, garaipena Imanol Goñi earraren, Aitor Ajuria otxandiarraren, Asser Alonso atxondarraren eta Ander de Luis gasteiztarraren artean egon daitekeela uste dute antolatzaileek.

Aurten, Sorginen Lasterketak babesle berri bat izango du. Axpeko Mendi Goikoa jatetxeak lagun birentzako gau bat eta gosaria zozkatuko ditu lasterkarien artean. Urteroko babesleek ere jarraituko dute: Etxoste jatetxeak, Akebaso jatetxeak, Hirumetek, Cemosak eta Atxondoko Udalak.

Jokaldia

Ikusten ez diren lesioak

Uda hau berezia izan da. Besteak beste, Tokioko Olinpiar Jokoak ikusteko aukera izan dugulako, urtebete geroago izan bada ere. Eta, egia esan, aurten bereziak egin zaizkit, momentu askotan jende ezaguna telebistan ikusteak bertan egoteko ametsa areagotu didalako. Atentzioa eman didate Jokoei buruz entzundako edo irakurritako komentario batzuk.

Orokorrean, epaiketa zorrotzak egiten dira kirolarien emanaldiei buruz (kirol jakin batzuetan eta batez ere emakumeetan hauek areagotu egiten dira). Honen harira, oihartzun handia izan zuen Simone Biles gimnastaren inguruan gertatutakoak. Inork ez du dudan jartzen kirolari batek hanka apurtzen badu konpetizioari uko egin beharko diola. Baina arazo psikologiko bat duelako parte hartuko ez duela esaten duen emakume bat "ahultzat" katalogatzen dute askok. Hau guztia, noski, euren etxeko besaulkitik, lasai gosaltzen duten bitartean. Minutu gutxi batzuetan, urte luzez egunero entrenatutakoa demostratu behar da, milioika ikusleren aurrean, eta, gainera, perfekzioa exijitzen da. Egun horretako momentu horretan dena bere lekuan egon behar da, dena perfektu ateratzeko. Eta, hala ere, inork ez du ziurtatzen kritikarik jasoko ez duzunik. Noski, inork ez daki, konpetizio horren aurretik zure bizitza osoan zehar zein egoera, arazo, baldintza izan dituzun, eta zeri egin behar izan diozun aurre. Horrek estresa sortzen du, dudak sortzen ditu, eta minutu horietan, begi horiek guztiak zure gainean dituzula, gerta liteke dena perfektua ez izatea.

June Arbeo Sarriugarte
Korrikalaria

"Arazo psikologiko bat duelako parte hartuko ez duela esaten duen emakume bat 'ahultzat' katalogatzen dute askok"

"Estresa eta antsietatea, zuntz haustura bat bezala, lesioak dira, errekuperazioa eta zainketa eskatzen dute"

Estresa eta antsietatea, zuntz haustura bat bezala, lesioak dira, errekuperazioa eta zainketa eskatzen dute. Eta, zoritxarrez, gehienetan, lesio fisikoak errekuperatzea baino gehiago kostatzen da.

Mugikortasun Astearen barruan Durangon egindako aurkezpena.

Durangok Mugikortasun Astea ospatuko du, mugikortasun eredu berriak sustatzeko helburuagaz

Emisio Baxuko Gune (EBG) berrian garatuko diren jarduerak prestatzeko, udalak herriko elkarteak kontuan hartzea erabaki du

DURANGO • MUGIKORTASUNA

Durangoko Udalak hainbat jarduera antolatu ditu irailaren 18rako, mugikortasun-eredu berriak sustatzeko, "Zure osasunaren alde, Mugi zaitez modu jasangarrian" lelopean. Ekitaldi horiek hilaren 16tik 22ra bitartean egingo den Europako Mugikortasunaren Astearen barruan sartzen dira, eta, gainera, aurrerantzean Durangon oinezkoentzat egokiagoa izango den eremu batean bilduko dira: Emisio Baxuko Gune (EBG) berrian, Sanagustinalde, Barandiaran eta Zumalakarregi kaleetan, hain zuzen.

Egitaraua osatzeko, udalak herriko hainbat elkartegaz batera lan egin du, besteak beste, Inurri Eskaut Taldea, Dukerami, Larrasoloeta Xake Taldea, Berbaro, Durango MTB, La Duranguesa, Stop Bide Indarkeria, Basati eta Dendak Bai-gaz. Jardueren bitartez, mugikortasun-ohitura berriak sustatu gura dira, herriguneak atseginagoak izan daitezen oinezkoentzat eta txirrindularientzat.

"Durango jasangarriago baterantz aurrera egin behar dugu, oinezkoek eta txirrindulariek euren jarduerak garatzeko espazio gehiago izan ditzaten. Emisio Baxuko Gune berriak aukera emango digu asteburuetan Durangoko erdigunean 25.000 metro koadro berreskuratzeko oinezkoentzat. Neurri horietara egokitzen joan behar dugu, Durango oinezkoentzat atseginagoa izan dadin", azaldu dute Ima Garrastatxu alkateak eta Julian Rios alkateordeak, herriko elkarteekin batera eginiko prentsaurrekoan.

Egitaraua osatzeko, Udalak herriko hainbat elkarterekin batera egin du lan

Ohitura horiek lortzeko asmoz, eta Emisio Baxuen Gune (EBG) berriaz baliatuta, irailaren 18an, zapatua, Zumalakarregi, Barandiaran eta Sanagustinalde kaleetan eta Benita Uribarrena parkean hainbat jarduera izango dira.

"Denok gogoratzen dugu Alde Zaharrean autoak aparkatuta utzi zitezkeenean. Baina, denboraren poderioz, gaur egun auto horiek Alde Zaharretik ateratzea eskertzen dugu. Alde horretatik, Durango atseginagoa eta ke gutxiagokoa izatearen garrantziaz kontzientziatzen jarraitu behar dugu", adierazi dute Garrastatxuk eta Riosek.

Jardueretarako eremuak

San Agustinaldeko espazioa merkataritzarako eta txirrindulari elkarteetarako egokituko da. Aparkalekuak erakusketetarako, konponketa-tailerrerako, informazio-mahaietarako, zikloen salmentarako eta abarretarako erabiliko dira. Aparkalekuak, halaber, abiapuntua izango dira bidegorria ezagutzeko talde-irteeretarako.

Benita Uribarrena parkean mountain bike zirkuitua egingo da, haurrek bizikleta trebetasunak hobetu ditzaten. Zumalakarregiko galtzadan artea eta jolasa garatzeko espazio bat banatuko da. Horretarako, Durangoko artista batek grafiti bat marraztuko du "Zure osasunaren alde, mugitu modu jasangarrian" leloagaz. Bestalde, aparkalekuak mihise gisa prestatuko dira, pertsonek klarionetan marrazkiak egin ditzaten.

San Agustinaldeko espazioa merkataritzarako eta txirrindulari elkarteetarako egokituko da

Barandiaran kalean, tailerrak, ludoteka eta jolas tradizionaletarako gunea jarriko da. Aparkalekuetan mahaiak eta aulkiak jarriko dira, eta horietan argizarizko tailerrak, jokoak, xake partidak... egingo dira.

Kanpaina honen bitartez, Durangoko Udalak honako puntu hauek sustatu gura ditu:

- Herritarrak sentsibilizatzea Durango atsegin eta baketsu baten onurei buruz eta ibilgailu pribatuak hartu ohi duen espazioak izan ditzakeen beste erabilera batzuei buruz.
- Durango ez hain kutsatua egon dadin, ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko beharraz kontzientziatzea.
- Joan-etorrietarako bitarteko jasangarrienak sustatzea (oinez, bizikletaz eta garraio publikoan).

Durangorentzat, Emisio Baxuko Gune (EBG) berriaren ezarpenak markatutako urtea da 2021a, eta, horri esker, asteburuetan 25.000 metro koadro berreskuratu ahal izango dituzte oinezkoek. "Asteburu honetako jarduerek durangarrak pixkanaka oinezkoentzako guneak berreskuratzearen beharraz kontzientziatzeko balio izatea espero dugu, Horregatik, durangar guztiak animatu gura genituzke asteburu honetako ekitaldietan parte hartzera eta kaleak eta, kasu honetan, errepideak har ditzaten, pixkanaka San Agustinalde, Barandiaran eta Zumalakarregi oinezkoentzako bihurtzeaz gozatzeko".

DURANGOKO MUGIKORTASUN ASTEA
Bizi osasuntsu, mugi zaitez modu jasangarrian
IRAILAK 18 11:00 - 14:00
Benita Uribarrena parkea
Mountain Bike zirkuitoa
Ezkurdi
Ortzadarra galtzadan
Grafitia eta jolasak
Jose Miel Barandiaran
Bustingintza tailerra
Xake tailerra
Ur jolasak
Jolas tradizionalak
San Agustinalde
Bizikleta irteera
Bidegorrira irteera
Txirrindularitza materiala
Bici-escalextric
Banaketarako ibilgailu jasangarria

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

// AUKERA

DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Igogailua. Jantzia. **C.E.E.=F 140.000 €**

IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m²-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**

DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E: F 130.000 €**

SANTA ANA: 76 m2. 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Berogailua. Leiho berriak. **C.E.E= E 125.000 €.**

BIXENTE KAPANAGA: 2 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **C.E.E= G. 125.000 €**

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Lehen mailako materialekin berriztatua. **C.E.E.= E. 97.500 €**

BERRIZ: 74 m2. 3 logela, komuna dutxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua.C.E.E= F ALOKAIRUAN, EROSTEKO AUKERAGAZ. **110.000 €**

ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Berriztatua. **C.E.E=E** Alokairuan, erosteko aukeragaz. **99.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

ATIKOA: 2 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela 30 m2-ko terrazarekin. Ganbara eta garajea. **C.E.E= F 317.000 €**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela terrazarekin. Eguzkitsua. **C.E.E=E 195.000 €.**

MADALENA: 132 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**

JESUITAK: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. **C.E.E=G 199.500 €**

ABADIÑO: Erdi berria. 85 m2. 2 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara. Garajea eta trastelekua. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ikuspegiak. **C.E.E=E 198.500 €**

MATIENA: Txinurrisolo. 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E=F 149.000 €**

AUKERA: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Trastelekua eta garajea. **C.E.E=B 310.000 €**

MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Igogailua. **C.E.E=E 155.500 €**

MATIENA: SOLAGUREN. Erdialdean. Argitsua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E=G. 120.000 €**

MATIENA: 3 logela eta komuna. Etxe osoak kanpora ematen du. Ikuspegiak. **C.E.E=E 104.000 €**

IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E= F. 140.000 €**

EZKURDI: 175 m2. 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 325.000 €**

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukalde eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan. **C.E.E=F 195.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m2. 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E=G 179.500 €.**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **C.E.E= E. 155.000 €**

DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. **C.E.E=F 145.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E=G 178.000 € NEGOZIAGARRIA**

BERRIZ: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Argitsua. Berriztatua. **C.E.E=E 130.000 €**

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Ikuspegi ederrak. **C.E.E=E 147.600 €.**

MAÑARIA: Etxebizitzak eta atikoak. Estreinatzeko. **125.000 €**

ABADIÑO: 1.000 m2-ko lursaila, eraikitzeko baimenagaz. **250.000 €**

ABADIÑO: Etxea. Berriztatu beharreko eraikina. 152 m2-ko 3 solairu eta behe estalpea. **200.000 €.**

GARAI: BASERRIA. 237 m2. 15.624 m2-ko lursaila. **C.E.E=G**

IZURTZA: Baserria. 324 m2-ko eta 134 m2-ko bi etxebizitzatan banatuak. 3 solairutan banatuak. **C.E.E=E 640.000 €**

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiagaz eta egongela.

DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.020 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitzeko. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserria, berriztatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzeko.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIRUAN

IURRETA: Arriandi. 3.036m²-ko lokala alokairuan. Aldagelak, komuna eta 5 tonako zubi garabiagaz.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

ISD Inmobiliaria del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

www.inmoduranguesado.com

TRAÑABARREN HIRIBIDEA: 65 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebaldea). ALTUA. ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. 8 m2-ko ganbara. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

175.000 € C.E.E:E

ARAMOTZ: : 185 m2-ko pabilioia. 125 m2-ko behe solairua + 60 m2-ko solairuartea. Lanerako gune gardena, bulegoa eta bi komun. Sarrera bikoitza, oinezko bidea eta ate handia ibilgailuentzat. Kokapen ezin hobea HIRI BARRUAN.

260.000 € C.E.E: G

JUAN DE OLAZARAN: 5 urteko antzinatasuna. 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (hego/mendebaldea). Argitsua eta leku onean kokatua. Garajea eta 7 m²-ko trastelekua. Ezin hobea.

310.000 € C.E.E:B

IPARAGIRRE: 79 m². Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta despentsa. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (mendebaldea) ARGITSUA. LEKU ONEAN KOKATUA. Garajea. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

245.000 € C.E.E:E negoziagarria

ITURRITXO: 16 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. (Hegoaldea) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.

198.500€ C.E.E: E Aukera

SAGASTA AUZOA: 20 urteko antzinatasuna. Bifamiliarra (erdia). 300 m2 erabilgarri 4 altueratan banatuta. Egongela, sukalde jantzia, 7 logela, 4 komun eta 3 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar / Hegoaldea). Argitsua. (azalera handia kristalezkoa). Inguru naturala. Garaje itxia, 60 m2-koa. Lursail partekatua, 20.000 m2-koa. Igerileku klimatizatua, portxea, egur-labea.

549.000 € C.E.E: Bidean

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Igogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z.=E**

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000€/ ORAIN 149.000€ E.E.Z=G**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m2-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.E=BIDEAN.**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitzeko baserria lurzoruagaz. **290.000 €**

//IURRETA

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MAÑARIA

KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. **150.000 € / E.E.Z= BIDEAN**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

GONBILAZ AUZOA: Baserria.5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z=BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

//GARAJEAK SALGAI

Durangon eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.

//BERRIAK

DURANGO

GOIENKALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **135.000 €/ E.E.Z =E**

MATIENA

TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Igogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**

Botikak

BARIKUA, 17· 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 18· 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurrondo 22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - **DURANGO**

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

SARRIA Sasikoa 17, **DURANGO**

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - **ELORRIO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

DOMEKA, 19 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA 20 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 21 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 22 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - **DURANGO**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 23 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Natali (861. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu Iurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9an.

Zorionak, **Elene**. Pilo bat maite zaitugu!

Zorionak, **Lur**. Eskerrik asko zure irribarre eta indarragatik. Zoragarria zara. Etxeko guztixok maite zaitugu.

Gure lego eraikitzaile profesionalak 8 urte egiten dauz. Zorionak, **Jon**! Jarraitu zaren modukoa izaten, asko maite zaitugu! Musu potolo bat Naiaren eta Arriandikoen partez.

Zorionak, **Nere**! Egun on-ona pasau! Hasi zeinke partidillue eta bazkarixe organizetan… Mosu handi bat!

Gure printzeak abuztuaren 23an 4 urte eta gure printzesak irailaren 18an 8 urte. Jarraitu horrela eta muxu potolo bana aitatxon ta amatxon partez.

Eguraldia

ZAPATUA 19° / 13°	ASTELEHENA 17° / 12°	EGUAZTENA 21° / 13°
DOMEKA 22° / 12°	MARTITZENA 19° / 11°	EGUENA 22° / 12°

Eskela

Maitane Gezala Rodero

Zure irrifarra betiko gozatzea nere ametsa da, zeruko jardinetan, zerurikan bada.

2021eko irailaren 9an hil zen, 26 urte zituela.

Zure mutila Iker, zure neba Haitz, zure ama Ana eta zure aita Santi (†).

DIBA KOOPERATIBA
Durangaldeko Baserritarren Elkartea
Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

"Ikuspegi agroekologikoa behar da, natura modu iraunkor eta sostengarrian kudeatu eta baliatuz"

Aritz Ganboa artzain ezagunak 'Bideak' dokumentala aurkeztuko du Garain, Xabier Unanua zuzendariagaz. Landa-eremua eta hiria lotzeko zubia eraikitzea izan du helburu

Aritz Ganboa De Miguel
Artzaina
ARRUAZU | **1979**

GARAI • AITZIBER BASAURI

Aritz Ganboa artzaina aurpegi ezaguna bihurtu da azken boladan. 'Bideak' dokumentala aurkeztu du hainbat herritan, eta arratsaldero Euskal Herriko hainbat etxetan sartzen da 'Biba zuek' telebista saioaren eskutik. Arruazun Idiazabal gazta egiten du anaiagaz eta lehengusuagaz batera, ALBI izenpean. Domekan Garain egongo da 'Bideak' aurkezten, Elizabarrin, 18:30ean. Euskal Herriko ardi txakur txapelketan ere parte hartuko du bihar.

Landa eremuaren eta artzainen bozgorailu bihurtu zara. Premiazkoa da landa-mundua bistaratzea?

Bai. Egia da telebista bidez, sareen bitartez edo Internetez ikusten dela, edo hari begira behintzat ari garela, eta jendeak ikusi behar badu hor gaudela eta premiazkoak garela, bitarteko horietatik lan egitea besterik ez dago. Telebistan horrelako tarte bat izateak garrantzia du bistaratzeko, ikusten ez den horrek, bestela, ez duelako eraginik gure inguruan.

Nafarroako Arruazu eta Izaba korrika lotzea, gazta bat motxilan eramanda. Erronka hura 'Bideak' dokumentalean jaso duzu. Zelako harrera izan du?

Oso pozik gaude. Abenduan estreinaldia egin genuenetik, luze eta zabal zeharkatu dugu Euskal Herria eta jende asko etorri da ikustera. 'Bideak' arbasoei egin nahi nien omenaldi pertsonaletik abiatu zen arren, landa-eremu bizia aldarrikatzeko ekintza berezia bihurtu da, nire bizipenak abiapuntu dituela.

> **'Bideak' landa-eremu bizia aldarrikatzeko ekintza berezia bihurtu da, nire bizipenak abiapuntu dituela"**

Landa-eremuaren eta hiriaren artean zubi bat eraiki gura izan duzu. Era berean, artzainen lanaren garrantzia nabarmentzeko tresna izan gura du 'Bideak'-ek.

Hala da. Oraindik bide luzea dago egiteko. Jende eta egitasmo asko daude bide horretan ekarpenak egiten. *Bideak* ekarpen bat gehiago da, gure ekarpena. Azken 40 urteetan gizarteari saldu zaizkion zenbait egia ukaezin zalantzan ikusi ditugu, krisi nabarmen baten ondorioz. Aldaketarako aukera bat sortu da, eta guri dagokigu horretaz baliatzea aldarrikatzeko izan ginelako garela, eta garelako izango garela edo direla. Horretan zeresan handia dute gure nortasunak, herriak, lurrak, lurrarekiko dugun loturak, gure bizimoduak eta ezagutzak, hizkuntzak... *Bideak* dokumentalak horri guztiari begirada bat bota gura dio. Globalizazioak krisi batera eraman gaitu etengabean, eta beste paradigma batzuk eraiki beharrean gaudela uste dut. Ikuspegi agroekologikoa behar da, natura modu iraunkor eta sostengarrian kudeatu eta baliatuz.

> **Globalizazioak krisi batera eraman gaitu etengabean, beste paradigma batzuk eraiki beharrean gaude**

Garain egingo den Euskal Herriko ardi txakur txapelketan ere parte hartuko duzu 'Txistu' txakurragaz, Nafarroakoan txapeldunorde izan eta gero.

Bai. Eta, zintzoa banaiz, uste dut ez dudala irabazteko aukera handirik. Han gauden neurrian, denok dugu aukera, edozer gerta daitekeelako, baina beste artzain batzuek maila izugarria dute, oso txakur onekin doaz. Gainera, azken urteotan ezin izan diot nahi beste denbora eskaini txapelketako prestaketari.

Artzainentzat lan handiko sasoia dator.

Ardien erditzea dator eta horretan gaude buru-belarri. Sasoi gogorra dator, lan handikoa. Gainera, ezin ahaztu salmenta zuzena, bezeroei arreta, landa-eremuaren kudeaketa, lurren zainketa, gazten produkzioa... Askotan modu idealean ikusten dugun mundu hori errealismoz ikusita konturatuko gara oso lan gogorra dela artzainarena, eta ezin dela artzain bakar batez hitz egin. Horrelako bidean aurrera egiteko, elkarlana ezinbestekoa da, eta erdigunean, ezinbestean eta oinarrizko moduan, emakumea dago, normalean alboratuta agertzen den irudia.

Lauhortza

Amaia Ugalde Begoña
Kazetaria

Aldaketa garaia

Uste dut nahiko konfirmatuta dagoela dagoeneko, ezta? Gerra aurreko eta osteko gertakizunekin pasatzen den moduan, bihar-etzi, gurean, pandemia aurreko gauzei eta pandemia ostekoei buruz berba egingo dugu. Esango dugu Zaldibarren justu pandemia hasi baino lehentxoago jausi zela hondakindegia; Durangon Pinondo Etxea zabalik eta bizi-bizirik zegoela pandemia aurretik; eta Elorrioko jaietan San Josen bake-bakean ziren gazteak bisitatzera joan zela Ertzaintza, helduagoek egunez egiten zutena egiteagatik.

Kontatuko diegu gure ondorengoei egoera surrealista asko bizi izan genituela pandemia garaian, eta ikasi genuela zein garrantzitsuak ziren aurrez aurreko hitzorduak medikuarenean; zenbat behar genituen gurasoen aurrez aurreko besarkada eta musuak, zein arraroa zen jendea ukondoarekin agurtzeko moda eskas hura.

Nik neuk gertaera gogoangarri asko bizi izan ditut urte eta erdi honetan. Aurtengo udaberrian, esaterako, gure kuadrillan lau ume jaio dira, tartean, gure txikia. Eta bai, definitiboki, Elorriotik Urola aldera egin dut hegan, gure herri maitetik deserroldatu naiz. Horregatik, itxiera perimetralak tarteko, haurdunaldiko eta umearen lehen asteetako joan-etorriak legez kanpo egin nituen; edo agian ez, egin zitezkeen ezinbesteko mugimenduen parte ziren horiek, zer demontre.

Horregatik, irakurle, ANBOTOn azken zutabea idaztea erabaki dut. Aldaketa garai hauetan, beste aldaketatxo bat. Egunero-egunero Durangaldea bizi duzuenok jarraitu txoko hauek hausnarketaz betetzen! Hori bai, ez ahaztu, Elorrixokuak beti izango gara elorriar, berdin Durangon zein Azkoitian bizi.